

ORIOKO ETA AIAKO ALDIZKARIA-2021-MARTXOAREN 5A-426.ZENBAKIA

KARKARA


ZENBAKI HONEKIN BATERA

+ GUKA ALDIZKARIA

ILEANA QUIÑONES

GARUNAREN SEKRETUAK ARGITARA





Bidaiatu eta ezkontzetara edo sagardotegira joateko.

Ubegun industria gunea, 4
AIA-ORIO

943-13 28 93 · 656 78 29 99 (Gabino)
Fax-a: 943-89 05 62
alustiza@autocaresalustiza.com

22, 26, 28, 49, 55 eta 60 eserleku dituzten literadun autobusak ditugu.



Olaskoegia z/g
AIA-ORIO
943-13 04 38

ANORGA TXIKI, S.L.
KRISTALDEGIA

Oria etorbidea, 4
LASARTE-ORIA

anorgatxiki@gmail.com
www.cristaleriaanorgatxiki.com
943-37 17 33 · 610 45 93 45

- Eraikin komertzialak
- Kristaldura bikoitza
- Segurtasun beirak
- Dutzako manparak eta ispiluak



Lurretik
Garbiketak
SERVICIO INTEGRAL DE LIMPIEZA

- Garbiketa orokorrak
- Etxebizitzak
- Bulegoak
- Obra amaierak
- Garajeak
- Ostalaritza

Santio erreka 41, Aia-Orio
636 18 82 92 / info@lurretik.es

edartegia **Antilla** *jatetxea*

Abeslari kalea, 2
ORIO
943-83 23 09

- Menuak
- Plater konbinatuak
- Errazioak
- Ogitaratekoak

Pelotari, 5 · ORIO
943-83 00 34
autolan13@hotmail.com

AUTO - LAN C. B.



arkaitz taberna
... uio ...

- EGUNEKO MENUA
- OGITARTEKOAK
- PINTXOAK
- PLATER KONBINATUAK
- KARTA

Terma ederrarekin giro ezin hobea

abeslari kalea 6 · 943-83 16 57



fontana
iturgintza
iturgintza · gasa · berogailuak

Zerbitzu teknikoak
24 ordu

- Komun eta sukaldeen erreforma
- Galdara eta termo elektrikoaren instalazioa
- Ur-jarioak aurkitu eta konpondu
- Bainujontzia kendu eta dutxa jartzea
- Zoru erradiatzailea

Arrantza kalea, 3 · ORIO
fontana-jul@hotmail.es
www.fontaneria-fontana.com
943-53 98 88 · 661 26 28 28



azkue
karrozeriak

Ubegun industrialdea, 7
AIA-ORIO
943-83 51 86

BODEGAS
Gailur

01307 BANCOS de EBRO
Tel/Fax 943 40 91 58
www.bodegasgailur.com
Arabar Errioxa

ZUDUGARAI



Gabriel Txakoli
DENOMINACIÓN DE ORIGEN

Tel.: 943-83 03 86 · Fax-a: 943-83 59 52
txakolizudugarai@euskalnet.net · www.txakolizudugarai.com



KARKARA 426

2021-MARTXOAREN 5A

AZALEKO ARGAZKIAREN EGILEA:
ARNAITZ RUBIO APREA



Aurkibidea

- | | | | |
|----|--|----|---|
| 5 | Iritzia Onintza Lete Arrieta
<i>Fruituak dastatzeko unea</i> | 26 | Erreportajea Iñigo Gaiton
<i>In memoriam: Maria Sagrario Miralles Arostegi</i> |
| 6 | Hitz tantak Iñigo Gaiton
<i>Maialen Uranga</i> | 30 | Klik! Aiora Larrañaga Solaberrieta
eta Iñigo Gaiton
<i>12 hilabete, dagoeneko!</i> |
| 8 | Izpiak eta hizkiak Joxemari
Olasagasti
<i>Uzbekistanera itzulera</i> | 34 | Akuilua hartuta Garazi Eizmendi
<i>Esterotipoak ikasketetan</i> |
| 10 | Gutunak | 35 | Nire honetan Rikardo Uzkudun
<i>Itzaoko tapoia</i> |
| 12 | Oroimenaren kutxa Iñaki Iturain
<i>Angela Loidi Bizkarrondo,
101 urteko lekukoa</i> | 36 | Moila bazterretik Aritz Pardina
<i>Oilarra kukuruka</i> |
| 17 | Herrian galdezka | 39 | Euskara Amaia Zaldua
<i>Noka, nika eta guka</i> |
| 18 | Elkarriketa Aiora Larrañaga
Solaberrieta
<i>Ileana Quiñones: "Garuneko minbizia
duten pertsonen ebakuntzaren
ondoren zer eboluzio izango duen
aurreikusi nahi dugu"</i> | 41 | Ikasleak idazle Aiako Lardizabal
Herri Eskola |
| 24 | Bazkidetza | 42 | Plazan bazan |
| 25 | Osasuna Rafa Gonzalez de Txabarri
<i>Obesitatea, isilarazitako pandemia</i> | 44 | Zerbitzuak |
| | | 45 | Agenda |
| | | 46 | Hasi bertsotan Gontzal Aldai |

KARKARA



TOKIKOM

Argitaratzailea

Urolako Komunikazio Taldea
Koop. Elk.
Soreasu 1. 20730
AZPEITIA
943-83 15 27
karkara@karkara.eus
www.karkara.eus
Lehendakaria
Rikardo Uzkudun

Erredaktoreburua

Aiora Larrañaga
Solaberrieta

Erredaktore taldea

Onintza Aiestaran
Onintza Lete Arrieta
Elizabete Manterola
Iñigo Gaiton
Rikardo Uzkudun

Diseinu arduraduna

Ane Azkue

Publizitatea

Leire Martija

Zenbaki honetako kolaboratzaileak

Iñaki Iturain
Rafa Gonzalez de Txabarri

Garazi Eizmendi

Aritz Pardina
Amaia Zaldua

Banatzaileak

Endika Ruiz (Orio)
Manex Dorronsoro (Orio)
Eli Irureta (Aia)

Inprimategia

Antza Inprimategia
(Lasarte-Oria)

Lege Gordailua:

SS-346/90
ISSN: 1132-1105
Tirada: 3.450 ale



Gipuzkoako Foru Aldundia



ORIO



AIAKO
udala

Carmen eta Txomin
ARRAINDEGIAK



TXOMIN ARRAINDEGIA
Eusko Gudarien kalea, 44
943-83 27 47

CARMEN ARRAINDEGIA
Arizaga kalea
943-83 05 37

Gabon
TABERNA

Eusko Gudarien kalea, 7
943-83 06 09

IGLESIAS
SARRAILAGILEAK



iglesiascerrajereros@yahoo.es
www.iglesiascerrajereros.com
Erribera kalea, 14 · ORIO
637 72 33 08

- Ateak irekitzen ditugu
- Sarraila-zilindro aldaketak
- Ateak ixteko malgukien aldaketa
- Komunitateentzako zerbitzua

24orduko zerbitzua

GARMENDIA

Higiezin Agentzia
Aholkularitza
Aseguruak

943-83 44 66 · 688 75 59 48
Ibai Ondo, 1 · ORIO
info@egarmendia.com

IZARRA ELEKTROGAILUAK

ESKaintza BEREZIAK
elektrogailuetan



SUKALDEKO ALTZARIAK
NEURRIRA egiten ditugu

Eusko Gudari, 44 · 20810 Orio (Gipuzkoa)
izarraelectrodomesticos@gmail.com

ITZIAR
KIROLAK

Eusko Gudarien kalea, 23
ORIO
943-83 31 03

Kolon Txiki
edaritegia · jatetxea

Herriko Enparantza 4
ORIO
Tel.: 943-83 00 44

Joseba
AROTEGIA · CARPINTERIA



687 683 427
josebaarotza@gmail.com

ATEAK
ZOKALOAK
ARMAIRUAK NEURRIRA
LEIHOAK
ESKAILERAK
AROTEGIA OROKORREAN

kutixi
kafetegia

Aritzaga 9 · ORIO · 943-13 15 17

INDO
TRANSPORTES · FRIGORIFICOS

Garraio frigorifikoa
Nazionala eta Nazioartekoa




generoa
garraioak

Ubegun industriagunea, 4
AIA-ORIO
943-89 4024 · FAX-a: 943-13 01 44

Fruituak dastatzeko unea



ONINTZA LETE ARRIETA

Honezkero ohartuko zinen zenbaki hau beteago datorrela; pisu gehiago duela, mardulagoa dela. Orriak aurrera eta atzera ibili bazara, akaso aurkituko zenuen GUKA izeneko beste azal bat, aldizkari barruan. Horixe aurkeztera natorkizu, hain zuzen: mimoz ondu dugun hamasei orrialdeko gehigarria da, eta Urolako Komunikazio Taldearen (UKT) lau herri aldizkariekin banatuko da hemendik aurrera, hileror; Baleike, Karkara, Maxixatzen eta Uztarriarekin. Binakako elkarrizketa sakonak, erreportaje zabalak eta urrutira joan gabe ezagutzeko eta egiteko planak aurkituko dituzu zenbakiz zenbaki. Elkarrizketa edo erreportaje nagusia egiten duen kazetariak gaiari buruz iritzi edo analisisa ere eskainiko du, eta aurrenekoa Amaia Urbietza Zarauzko erredaktoreburuak egokitu zaio.

Papereko berrikuntza honekin batera, lantaldean ilusio handia eragiten digun beste estreinaldi bat ere aurkeztu beharrean gara: GUKA magazina. Hilero ordubeteko saio fresko, bizi eta zaporez betea eskainiko dugu martxoaren 5ean hasita Erlo Telebistan. Mireia Galarza kazetariak aurkeztuta, Urola Kostako herri eta auzoetan barrena ibiliko da saioa. Aurreneko geldialdia Getarian egingo dugu, eta Eñaut Elorrieta izango da elkarrizketatu nagusia. Erreportaje txikiak ere izango ditu magazinak, baita inkesta, agenda eta halako atalak ere. Eta, noski, esku artean duzun gehigarriak ere izango du bere tokia telebista saioan. Batetik, elkarrizketa edo erreportaje nagusiaren laburpena eskainiko da, eta bestetik, Urrutira joan gabe atala izango du: paperean zerbait praktikoa eta motza dena, magazinean zabal eta luze jorratuko da. Gorka Peñagarikano kazetariak egingo ditu aurkezle lanak, eta bisitatzen duen txoko bakoitzean edukiko du tokia erakutsiko dion gonbidaturen bat. Aurreneko geldialdia Azkoitiko Attolan egin dugula ikusiko zenuen. Bada, QR kode bat jarri dugu, erreportaje osoa ikusi ahal izateko oraintxe bertan, eta beste kode bat jarri dugu elkarrizketaren amaieran.

2019ko ekainean sortu genuen UKT, eta iritsi da lehen fruituak patxadaz dastatzeko unea. On egin diezazula! ■■■

**HILERO HAMASEI
ORRIKO GEHIGARRIA,
ETA TELEBISTA SAIO
FRESCO, BIZI ETA
ZAPOREZ BETEA
ESKAINIKO DUGU**



**LASTER
DESATASCOS**

- Libraketak
- Hobi septiko eta putzu beltzen garbiketa
- Uholdeetako uren hustuketa
- Teilatu hodian garbiketa
- Saneamendu sareen ikuskapena
- Puzkatutako hobien geolokalizazioa
- Ur jario atzematea
- ...

desatascos@desatascoslaster.com
www.desatascos.com
24 orduz 688 88 65 36 (Larrialdiak)

Abaromendi 3, 20810 ORIO · Sagar Erreka 21-A, 20590 SORALUZE · 943-75 14 31 (bulegoa)

Maialen Uranga

TESTUA: IÑIGO GAITON

ARGAZKIA: UTZITAKOA

Maialen Urangak haize eta bizipen berrien bila jo zuen Madrilera duela hiru urte, eta hiri handiak eman dio aurkitu nahian zebilen hura. Arropa eta moda kontuetan murgilduta dabil, ofizioz eta afizioz, eta ez zaio entretenimendurik falta. Dena den, itsasoa, familia eta lagunak faltan bilatzen dituela aitortu du.

Nondik datorkizu moda kontuekiko zaletasuna?

Orioko arropa denda batean lan egiten hasi arte, ez nuen interes berezirik. Han, lanerako gai nagusia arropa izanik, kateatzen hasi nintzen pixkanaka, eta denborarekin erabat harrapatu nau.

Gero, zeure denda ireki zenuen Zarautzen.

Lau urtez izan nuen irekita. Aurrez, kontratua amaitu zitzaidan orduan lan egiten nuen Zarauzko dendan, eta handik hilabetera irekita nuen neure negozioa. Zirt-zart, gehiegi pentsatu gabe eman nuen urratsa. Atzera egiteko aukera izanez gero, begiak itxita errepikatuko nuke.

Zer eman zizun negozio propioa izateak?

Ikasketa prozesu ikaragarria izan zen. Lan eta ardura guztiak niregain nituen, eta horrek negozioarekiko ikuspegi zabal eta sakonagoa izaten erakutsi zidan. Gainera, *saltsera* samarra izanik, asko gozatzen nuen arropa ikustera-eta egindako bidaietan. Neure denda irekitzea eta Madrilera etortzea, horiek izan dira inoiz hartu ditudan bi erabaki onenak, biek ikaragarri ikastera behartu nautelako.

Nolatan itxi zenuen Zarauzko denda?

Madrilera etortzea erabaki nuelako. Dendak ondo funtzionatzen zuen, baina lau urte eta gero, ziklo berri bat hasteko gogoia piztu zitzaidan, eta hor ere zirt-zart hartu nuen erabakia: Zarauzko negozioa itxi, eta Madrilera etorri nintzen, hemen lan edo proiektu segururik eduki gabe.

Zertan zabilta orain?

Bartzelonako marka batentzat egiten dut lan, dendako bigarren arduradun modura. Saltzailea izateaz gain gestio lanak ere egiten ditut.

Izurriteak zer nolako eragina izan du dendan?

Handia. Eta hori, auzune aberats batean dagoela kontuan izanda; Salamanca auzoan. Dendan bertan iaz baino %40 gutxiago saldu dugu, baina online, dezente gehiago. Mugimendu oso handia dago sarean.

Modari lotutako eduki asko publikatzen duzu sare sozialetan. Lanaren parte da? Edo zaletasun hutsa?

Zarauzko denda ireki nuenean hasi nintzen sare sozialak lanarekin uztartzen, ordura arte ematen nien erabilera pertsonala zelako guztiz. Denbora pasa ahala, sare sozialen bidez gero eta lan gehiago egiten nuen, hala arropa erakusten nola bezeroekin harremanak izaten, eta negozioaren parte garrantzitsua bihurtu zen alor hori. Orain, zaletasun bat da niretzat, baina denbora dezente eskaintzen diot, markekin kolaborazioaren bat edo beste egiteko aukerak izaten ari naizelako.

Nolakoak dira kolaborazio horiek?

Nire kasuan, *body positive* delako esparruan espezializatu naiz; neurri handietako arropan, alegia. Gustukoen ditudan arrokekin janzkiak pentsatzen ditut, gero horiek soinean ditudala argazkiak egin eta publikatzeko. Irudiak txukunak izan daitezen saiatzen naiz, argazkiak egiteko tokia eta arropen estiloa uztartzen etab. Nire saltsa da, eta ondo pasatzen dut.

Markek zugana jotzen badute, jarraitzaileak dituzun seinala izango da. Zer nolako harremana duzu haiekin?

Ona, egia esan. Jantziak konbinatzea nahikoa gauza naturala da niretzat, baina jende bati hori egitea asko kostatzen zaiola ohartu naiz. Hala, jarraitzaile horietako batzuek esker oneko hitzak ere izaten dituzte, gustuko estiloa bilatzen laguntzen diedalako. Gainera, argazkietan neurri handiko arropa asko erakusten dudanez, inork idatzi izan dit konplexuak kentzen lagundu diodala aitortuz. ■■■



Uzbekistanera itzulera

ARGAZKIA: JOXEMARI OLASAGASTI

TESTUA: JOXEMARI OLASAGASTI

ETA PILAR SAN SEBASTIAN

Uzbekistanera bidaia egin genuen 2019an, eta argazkia Samarkanda hiriko plazan egindakoa da. 1987an ere han izan ginen, herrialdea Sobietar Errepublika Sozialisten Batasunean zegoen garaian. Gaur egun independentea da. Liluratu egin gintuen Samarkandak, eta itzuli egingo ginela hitz eman genion gure buruari. Hiria Zetaren bideko hiriburu nagusienetakoa da, eta plazako eraikuntzak eta inguruak eraberrituta daude. Fotoan argi ikusten dira hiru madrasa edo goi mailako irakaskuntzarako eskolak. Koranean oinarritutako teologia eta zuzenbide ikasketak ematen dira, baita literatura, matematika eta beste zientzia batzuk landu ere. Bitxikeria modura, esan ikasleek ez dutela ezer ordaindu beharrik izaten, ez ikasteagatik, ez han bizitzeagatik. ■■■





Lardizabal Eskola aterperik gabe, noiz arte?

LARDIZABAL ESKOLAKO GURASO ELKARTEA

Aiako Lardizabal Eskolako Guraso Elkarteak Aiako Udalarari behin eta berriro hainbat aterpe ezartzeko eskaera egin dion arren, arazoak konponbiderik gabe jarraitzen du. 2016ko abenduaren 19an inauguratu zen eskola berria, eta, albiste ona izan zen arren, eraikinaren inguruan iritzi kontrajarriak egon ziren hasieratik: Eraikinaren *gaztetasunak* hainbat alde positibo zituen arren (leiho handiak, terraza, espazio anitzak, psikomotrizitate edo jarduera desberdinetarako gela handia, jangela...) hainbat gabezia ere bazituen (sarrera nagusiko estalpe oso txikia, 2 urteko sarreran aterperik ez, umeen interesguneetan oinarritutako kanpoko espazio propiorik ez izatea, etab.).

Urteek aurrera egin ahala, arazoak agerian geratuz joan dira, eta zoritxarrez zerrenda luzatuz doa: hezetasuna dago hainbat gelatan eta irakasle gelan metro batera iristen da; ura leku desberdinetatik iragazten da eta berogailuek ihesa dute.

Horri, COVID-19ak eragindako osasun larrialdi egoera gehitu behar zaio. Eskolak Hezkuntza Sailak ezarritako protokoloak betetzeko ahalegina egin arren,



Pilaketak eskolako sarreran.

sarrera nagusiko estalpea oso txikia denez, familia eta ume pilaketak gertatzen dira eskola sarrera-irteeretan.

Egoera horri irtenbide bat emateko eskolako zuzendaritza taldeak eta Guraso Elkarteak, urriaren erdialdean, aterpea ezartzeko eskaera idatzia egin zioten Aiako Udalarari, eta bilera egin zuten urriaren 27an alkatearekin. Ondorengo elkarrizketetan, HH2 sarrerako aterpea Gabonen bueltarako amaituta egongo zela adierazteaz gain, sarrera nagusiko aterpea ezartzeko aukerak aztertzen ari zirela adierazi zuen alkateak.

Baina, ez bata ez bestea: HH2ko aterpearen arrastorik ez dago, eta azken elkarrizketen arabera, sarrera nagusian ez da aterperik ezarriko. Behin-behineko *karpa* jarri du Aiako Udalak, baina segurtasunari dagokionez zailantza eta kritika asko jaso ditu. Azpimarratu

beharra dago, 2020ko abenduaren hasieran Eusko Jaurlaritzak eskolen azpiegiturak egokitzeko Udalaguntza 2020 izeneko deialdia jaso zutela eskolak, Guraso Elkarteak eta Aiako Udalak (laguntza hau udal titulartasuneko eraikinetan dauden ikastetxeen obrak finantzatzera zuzendua dago, 360.000 eurora arte). Hala ere, zoritxarrez, Aiako Udalak uko egin dio laguntza horri, eta aterpea eraikitzeko diru iturri handiari bizkarra eman dio.

Udalaren informazio kontrajarriaren aurrean, Guraso Elkarteak sinadura bilketa abiatu zuen. Sinadurak urtarillaren amaieran udalean aurkeztu ziren arren, honek ez du erantzunik eman.

Lardizabal Eskolaren aterpea arazo larria denez, Guraso Elkarteak Hezkuntza Sailera jo du eta bertako teknikarien azterketaren zain dago. Hala, Guraso Elkarteak beharrezko pauso guztiak emateko prest dago, egoerari konponbidea ematea borondate kontua dela garbi baitu.

Aiako Udal Aurrekontuaren harira

AIAKO EH BILDU

Urtarrilaren 28an bilera egin zen 2021eko Udal Aurrekontuak onartzeko, eta Aiako EH Bilduren ezezko botoaren irazoiak adierazteko premia ikusi dugu.

Egoera ulertzeko, Aiako EAJren Udal Gobernuarekin

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). KARKARAK eskubidea du gutuna laburtzeko, KARKARAK ez du argitaratuko izenik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizenarekin argitaratuko dugu; baina beti, guk egilea nor den jakinda. Gutunean norbait aipatzen baldin bada eta pertsona horrek gutunaren egilea nor den jakin nahi badu, KARKARAK esan egingo dio.

Argitaratu nahi diren gutunak KARKARARA bidali daitezke posta elektronikoz honako helbidera: karkara@karkara.eus edo erredakziora eskura ekarri -Oriko edo Aiako Kultur Etxean- edo postaz bidali. Kultur etxea, 20810 Orio

izan dugun harremana nolakoa izan den azaldu behar dugu. Euren konfiantza lortu eta benetako elkarlan giro bat izateko asmoz, astero aurkeztu da EH Bilduko zerrendaburua udaletxean. Aiako kontuei buruz informatuta egoteko eta geure iritziak jakinarazteko... baita telefonoz naiz Whatsapp bidez galderak eginez.

Abuztuan, aurrekontuei buruzko lanketa egiten hasi ginen, eta genituen proposamenak azaroaren amaieran helarazi genizkion alkateari. Homa hemen batzuk:

- Kultur Etxeko kudeaketa egokitzea (...).
- Eskolaren ondoko parkea estaltzea.
- Aiako udal ekipamenduak txukuntzea auzoak kontuan hartuta eta, bereziki, auzo guztietako frontoietan begirada jarrita.
- Andatzen, Aristerrazutik behera doazen eskailerak egokitzea. Santio Errekan nahiz Urdanetan, autoentzako aparkaleku bana sortzea, eta azken horretan Izarra tabernaren aurrean, badena eta zebrabide bat jartzea.
- Udal Gobernuari aurrekontuetarako zuen zirriborroa eta informazioa eskatu genion bi hilabetez, eta alkateak azaldu zuen finantziazioan zeuden zailtasunak medio ez zela momentu aproposa.
- Urtarrilaren 14an, aurrekontuen zirriborroa azalpen batzuekin aurkeztu

ziguten. Hala ere, taldean aztertzeo asti gutxi izan genuen. Gainera, ez zegoen zehaztuta diru partidak zertarako erabiliko ziren, eta alkateak agindu zigun elkartuko ginela berriz. Urtarrilaren 28rako deitu zuten udalbatzarra eta egun horretan bertan, goizean, alkatearen dei bat jaso genuen pare bat azalpen emateko elkartu nahi zuela esanez. Sinetsi ezinean geunden, bi aste eduki baitzituzten hauek helarazteko. Hala ere, elkartu ginen, baina ez zizkigun zalantza guztiak argitu.

Elkarlanerako eta gure proposamenak kontuan hartzeko borondaterik ez du izan. Gainera, otsailaren 1ean, Aiako alkateak sare sozialetan egin zuen adierazpenak erabat mindu gintuen. Ez dugu ulertzen, zer dela eta esan duen oposizioaren partetik ez dutela proposamenik jaso. Aiako Udalak kudeaketa serio bat merezi du. Elkarlanean jardun behar da, eta gure aldetik, eskua luzatuta izan dugu beti. Bide okerretik ikusten dugu Udal Gobernua, eta oso arduratuta gaude goizago ala beranduago, jarrera horrek, Aiari ondorioak ekar diezazkiokeelako.

Halere, txarretik onena ateratzen ikasi dugu. Konfiantza honen gainean genuen hartueman "berezi" hau, beste modu eraginkorrago batean bihurtzea ahaleginetan murgilduta gaude. Horretarako, aiarroi gugana lasai hurbiltzeko gogorarazten dizuegu.

Elkarrekin Aiak, aldaketa merezi eta behar duelako. ■■■

JAIOPERRIAK

- **Sara Aizarna Sarasola.** Orion, otsailaren 5ean.
- **Enara Manterola Zabaleta.** Orion, otsailaren 7an.

HILDAKOAK

- **Maria Sagrario Miralles Arostegi.** Orion, urtarrilaren 31n. 85 urte.
- **Justo Arruti Lertxundi.** Orion, otsailaren 1ean. 90 urte.
- **Miren Gereka Ozaeta.** Orion, otsailaren 1ean. 84 urte.
- **Arantxa Enbil Solaberrieta.** Orion, otsailaren 2an. 76 urte.
- **Ramon Maria Oliden Alberdi.** Orion, otsailaren 4an, 86 urte.
- **Bittori Zinkunegi Txapartegi.** Laurgainen Aian, otsailaren 6an. 87 urte.
- **Ana Alberdi Arruti.** Orion, otsailaren 9an, 83 urte.
- **Nekane Arruti Lizarralde.** Orion, otsailaren 13an. 78 urte.
- **Francisca Anttoni Albeniz Etxezurieta.** Aian, otsailaren 20an. 88 urte.
- **Jean Emmanuel Vandervinne.** Orion, otsailaren 21ean. 81 urte.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). KARKARAK eskubidea du gutuna laburtzeko. KARKARAK ez du argitaratuko izenik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizenarekin argitaratuko dugu; baina beti, guk egilea nor den jakinda. Gutunean norbait aipatzen baldin bada eta pertsona horrek gutunaren egilea nor den jakin nahi badu, KARKARAK esan egingo dio.

Argitaratu nahi diren gutunak KARKARARA bidali daitezke posta elektronikoz honako helbidera: karkara@karkara.eus edo erredakziora eskura ekarri -Oriko edo Aiako Kultur Etxean- edo postaz bidali. Kultur etxea, 20810 Orio

Angela Loidi Bizkarrondo, 101 urteko lekukoa



IÑAKI ITURAIN iturain@gmail.com

ARGAZKIAK: DANI BLANCO

Angela Loidi Bizkarrondo Errenterian jaio zen 1916an. Angela eta Jose Antonio anai-arreba bikiak ziren. Haiek jaio baino urte gutxi lehenago joan ziren gurasoak Errenteriara Oriotik. Loiditarren aldetik oriotarra zen Angela; Bizkarrondo, berriz, Bilintxengandik zetorkion, Indalecio Bizkarrondo bertsolari poetaren aldetik, haren sendikoa baitzen. Haurtzaroko eta gaztaroko urte batzuk Orion igaro zituen. Angela, Madrilen farmaziako ikasketak eginda, botikaria izan zen.

Aspaldiko urteotan, Angela bakarrik bizi zen Donostian. Oroimen oneko emakume atsegina zen, eta hiltun ona. Gertukoek Anjelita deitzen zioten. 101 urteko bizitza luzea izan zuen Anjelitak gauza asko zituen kontatzeko bere txikitako Orioren gainekoak, gerra aurrekoak eta gerra garaikoak ere bai. Horixe erakutsi zigun 2016ko abuztuaren 22an Irunen berarekin egon ginenean. Egun hartan Anjelitaren anaia Jose Antonio Loidi idazle zenduari Euskaltzaindiak omenaldia egin zion. Jose Antonio ere farmazeutikoa izan zen ofizioz, eta idazle afizioz. *Hamabost*

egun Urgainen izan zen haren liburu ezagunena.

Bizipen ugari

Angelak 100 urte bete zituen 2016ko udan, eta Euskal Nobela Beltzaren Astean mintzatu zen Baztanen, anaia Jose Antoniok idatzitako *Hamabost egun Urgainen* nobela beltzari buruz, euskaraz nobela poliziakoen generoan idatzitako lehenengoa. Han zegoen Miel Anjel Elustondo kazetari azpeitiarra jabetu zen 100 urteko emakumeak esatekorik asko zuela, eta elkarrizketa egin zion *Argia*-rako (2.542 zk.), batez ere 1936ko gerraren lekuko zuzena izan zen aldetik. Elustondoren elkarrizketa ekarri dugu KARKARara, laburtuta; izan ere, gu 2017ko Gabonetan Anjelitarengana joatekoak ginen elkarrizketatzera, baina justu egun batzuk lehenago hil zen.

Elustondok elkarrizketaren sarreran Loidiri buruzko datu interesgarriak jarri zituen: Pasai Donibanen eta Donostian botikaria izan zela, Errenterian

zinegotzi abertzale eta gero alkate izan zuela aita, eta haren ibili politikoak agindu zuela familiaren biziera gerra garaian. Baina interesgarriagoa edo, behintzat, harrigarriagoa da ondoren dioena: "90 urte beterik ere Yemen, Uzbekistan, Armenia eta batean eta bestean ibili da. Lehenago, berriz, munduan diren eta ez diren bazterrak korrituak zituen".

Elustondok aitaren ibiliaz galdetu zion elkarrizketan, eta halako batean, honela esan zion Loidiri: *gerra historia da zurea*. Honela erantzun zion Anjelitak: "Eta istorio horiek jaso zizkidan Pako Etxeberriak, Aranzadikoak, grabazioan. Horiek aditu nahi zituen. Beste kontu bat, gerratekoa: senarra ihes eginda zeukaten emakumeak oinez bidali zituzten Zumaiaetik Bizkaiara. Gaztea nintzela, neskame bat izana genuen, Bitxori, Goizuetakoa. Mikelete batekin ezkondu zen, Zumaia. Gerran, Bilbora joan zen mikelete hura, eta Zumaian geratu zen Bitxori bost umerekin. Francoren tropak sartu zirenean, hartu emakumeak –Bitxori tartean–, eta oinez bidali zituzten Lekeitiora. Bitxori, bost umeekin joan zen; txikiena, lau hilabetekoa zuen. Bilbon ginela, jakin genuen nola ari ziren emakumeak Lekeitiora iristen,

**GERNIKAKO
BONBARDAKETA OSO
GERTUTIK BIZITZEA
TOKATU ZITZAION
LOIDIRI**



Angela Loidi Bizkarrondo, Errenteriako oriotarra, 100 urteko emakume gazte, kementsu eta alaia.

eta hara joan ginen aita eta biok. Hantxe ikusi genuen Bitxori. Hartu eta Bilbora eramán genuen, senarraren ondora. Turtziozera joan ginenean, berriz, gurekin etorri zen, eta etxean lagundu zigun. Han izan nintzen elbarria".

Gernikako bonbardaketa oso gertutik bizitzea tokatu zitzaion Loidiri, eta 101 urte eduki arren, bezperan gertatu izan balitz bezala azaldu zion kazetariari: "Aita Gernikan zen bonbardaketa izan zenean. Gu Ispasterren geunden, Arritola baserrian. Guri han tokatu zitzaigun bonbardaketa, mendi zuloan gordeta. Aeroplanoak gure gaineraino etorri eta buelta ematen zuten. Paper



Aita Florentino Loidik gerra garaian Iparraldetik bidali zizkien gutun guztiak gorde zituen Angelak.

txuriak bota zituzten. Alde egin zutenean, ikusi genuen zer jartzen zuen paperetan: "Cuando las barbas de tu

vecino veas pelar, pon las tuyas a remojar". Zer ulertu zuten hortik? "Kontuz ibiltzeko, hurrena guri botako zizkigutela



Angela botikaria izan zen, aurrena Villabonako botikan eta gero Pasai Donibanen erositakoan.



Gerra aurreko argazkia da. Maisu-maistrak zuhaitzaren eguna ospatzen. Eskuinean, Angela eta bere ama Ana Bizkarrondo.

bonbak. Gehiago ez ziren etorri aeroplanoak. Aitak autoa zuen, eta Ereñoko alkatearekin partekatzen zuen, Bilbora joan eta etortzeko. Gernika bonbardatu zuten egunean, aita ez zela agertzen! Nonbait, Bilbotik bueltan zetozela, lehenengo bonbardaketak harrapatu zituen eta estolderian babestu ziren. Gero, bigarrenak Gernikako Erretereria auzoan harrapatu zituen. Autoa kamino bazterrean utzi eta mendian gora jo zuten; pinu artetik ikusi zuten suzko bonben eraso. Gu kezkatan geunden, Gernikatik gora kea ikusten genuen-eta".

Biharamunean Gernikan bertan ibili zen Loidi. "Goizean goiz izan nintzen Gernikan. Dena zegoen zikina. Ez zen etxea eta kalea bereizten... Handik Bilbora, aitarekin. Joseba Leizaolarekin bizi izan ginen, Jesus Mari Leizaola lehendakari izango zenaren anaiarekin, haien aita Rikardoren etxean. Jesus Mari Leizaola ere osabatzen geneukan, andrea Maritxu Loidi zuen-eta, gure familiakoa. Han bizi izan ginen ia tropak Bilbon

sartu ziren arte. Orduan Turtziozera joan ginen ihesi".

Elbarri nola gelditu zen ere azaldu zuen elkarrizketan. Turtziora joan zirenean gertatu zen, hain zuzen: "Frontea Turtziotzen zegoen, eta hantxe zegoen gobernua: Jose Antonio Agirre, Jesus Mari Leizaola... Egun batean, baserritar batek esan zigun piku asko zeuzkala, eta haiek jatera joateko. Anaia eta biok joan ginen. Arbola astinduta, pikuak biltzen ari ginela, han non datozen aeroplanoak. Bonbak botatzen hasi ziren. Batek gure ondoan soroan ari zen baserritarra hil zuen. Beste batek geunden tokitik bi metrora bota gintuen; haren metrailak zangoa harrapatu zidan. Lagun batek painelua hartu eta torniketea egin zidan, odola ez galtzeko. Kamioi batean Karrantzako bainuetxean jarritako ospitalera eraman ninduten. Orbana daukat ezkerreko belaunburua baino beherago. Metrailla gordeta daukat. Egun hartan 36 lagun hil zituzten Karrantzan. Harrezkero, egunero hasi ziren bonbardaketak, eta gudariak

joan egin ziren Turtziozetik. Etxe paretik pasatu ziren, *Eusko gudariak* kantatuz. Han ziren Amaiur, Loiola... eta beste batailoi batzuk. Santoñara joan ziren, han hartu zituzten preso".

Gerraostea

Gerra ondoren, berriz, Orion egon zen gaztetan Loidi, familiarekin. Aitaren lehengusu Luis Loidiren bitartez egon ziren Orion, nahiz eta Angelita bera ez zen luzaro egon bertan. "Haiek lagundu ziguten; oso ondo portatu ziren. Bazuten etxe txiki bat hutsik, eta hantxe sartu ginen. Baina dirurik ez genuen, Joxe Antonio [anaia] gaixorik, eta orduan nik lana bilatu nuen Villabonako botikan; ordurako urte bat besterik ez zitzaidan falta ikasketak bukatzeko. Hiru urte egin nituen Villabonan bizitzen. Garai hartan ez zegoen oraingo telefono mugikorrik, eta eskutitzez hitz egiten genuen. Eta zer edo zer presazkoa bazen, halako orduan herriko telefono-zentralean geratzen ginen eta hitz egiten genuen

Oriotik Villabonara eta Villabonatik Oriora. 1939an, *etsamin patriotikoak* izenekoak egin zituzten, nik ikasketak bukatu nituenean. Azterketa haiek egin eta Pasai Donibaneko botika erosi nuen. Orduan bazen San Sebastian bankua, eta hango zuzendariak gure aita ezagutzen zuen, eta botika erosteko mailegua eman zidan 1940an".

Familia erabat sakabanatuta egon zen garai hartan: Anjelita Villabonan, anaia bikia eta ama Orion, eta aita, berriz, Iparraldean: "Aitak Turtziozetik Laredora jo zuen, eta Asturiasko herri batean bapore ingeles batean sartu eta Bordelera iritsi zen, beste askorekin batera. Handik, Kanbora. Urtebete egon zen han, hainbeste euskaldunekin. Kanbon zegoela, gerratik joandako umeentzako etxe bat prestatu zuten Armendaritzen, Jauregia esaten zioten etxean, eta hango administratzaile izendatu zuten. Hantxe egon zen umeen gurasoak joan eta jaso zituzten arte. Gordeak ditut aitak eskribitzen zizkidan eskutitzak. Gerra denboran, zentsura pasatuta bidaltzen genituen eskutitzak Villabonatik Oriora, eta Kanbora, eta Armendaritzera, inork ez entenditzeko moduan: Sagarra zen Gasteiz, Alarcón Madril, Turtzioz Castillo, Katalunia zen Clavería... Aitak ere ez zuen sinatzen Loidi, bigarren eta



Gerrak ekarri zien sufrimendu izugarriak ere ez zion ezabatu irribarrea Angelari.


hirugarren deiturak erabiltzen zituen (Alkorta, Iturzaeta)", azaldu zion Elustondori elkarrizketa mamitsuan.

Eskutitzak bidaltzeko egiten zituzten esfortzuak ere kontatu zizkion azpeitiarrari Angela Loidik. Film edo liburu batetik ateratakoak izan zitezkeen: "Lehengusu txikia genuen Elizondon, Anita, eta eskutitza bidaltzen nion hari, baina barrenean beste bat, aitarentzat. Lehengusuak konfiantzako baserritar ezagun bati ematen zion gutuna, eta hark halako arbolan uzten zuen, gordeta. Hurrengo baserritarra etorri, eskutitza hartu eta beste arbola batera eramaten zuen. Horrela ailegatzen zitzaion eskutitza aitari, batzuetan Donibane Garaziko edo Bidarraiko postetxetik barrena, Frantziako seilu eta guzti. Gerrate garaian ere jendea portatu zen, horratik! Bestela ez genuen bata bestearen berri jakiterik. Eskutitz haiek denak gordeak dauzkat, harrigarria bada ere".

Gizon-emakumeez eta berdintasunaz ere eman zuen

bere iritzia gure protagonistak, ordurako 101 urte eduki arren: "Gure aitaren historiaz ari diren aldizkarietan gizonezkoen argazkiak dira handiak, eta gureak txiki-txikiak. Ez dakit gizonek gehiago balio zuten, baina badakit gehiago agintzen zutela. Botika-aldizkarietan ere lehendakariak gizonezkoak dira beti, eta aldiz, botikarien artean emakume gehiago dago gizona baino. Akordatzen naiz, behin, botikario bilera batean, hasi zen emakume bat zerbait esaten, eta lehendakariak esan zion: *Zu, isilik!* Betiko gelditu zitzaidan. Orain ez dira atrebitzen horrelakorik esaten".

Zentzu horretan, gaztea zenetik gauzak majo aldatuta ikusten ditu, zorionez: "Gerra hasi baino zortzi egun lehenago etorri nintzen Madrildik, aitak lagunduta, Botika-ikasketako lau urteak eginda. Han egiten nituen etsaminak, eta aitarekin joaten nintzen. Ez zidaten bakarrik joaten uzten, neska batentzako leku peligratzeko zen Madril. Orain, berriz, Munichera doa iloba. Gauza horiek asko aldatu dira". ■



KAIOA

 kaioa_denda
 www.kaioa.es

Lizaso Dekorazioa



Eusko Gudari, 48 · ORIO · 943-83 07 84
itzilizaso@gmail.com



%100 etxean egina
PIZZERIA
KALETA

Arrantza kalea, 10 943-24 89 46



MARIO
ILEAPAINDEGIA
Eusko Gudari, 8 behea · ORIO
943-13 47 29



Katu Horia

albaritaritza klinika

ESTROPALARZ, 10
48100 ORIO
tel. 943 11 66 99

LORRIOLAIAK
668891129

MENDIZABAL AROZTEGIA

Neurriko armairuak eta egurlanak

Altxerri bidea, Beti-Alai etxea · AIA-ORIO
943-83 11 75 · 645 70 84 91
mendi@arotzgi.net



KORTABERRI

arotz lanak

Imanol Illarramendi
Aia (Gipuzkoa)

kortaberri.arotza@hotmail.com 665 70 33 47



narau

school & translations

www.narau-school.com

Eusko Gudari 29 · ORIO
943-83 11 16
648 97 64 70
info@narau-school.com

libe

dietetika
elikadura aholkularitza

Eusko gudariak, 35 · ORIO
(sarrera Arrantza kaleatik)

943-53 64 94
697 23 86 56
libegarmendia@gmail.com
www.libegarmendia.com




Zarautz

Hileta Zerbitzuak
1962. urtetik zure zerbitzura

24 ordu zure zerbitzura
Beilatokia · Lekualdatzeak ·
Eginbide guztien tramitazioa

Araba kalea 35 · ZARAUTZ
943-89 49 37
info@zarautzhiletazerbitzuak.eus



Nola bizi duzu izurritearen eboluzioa?



JESUS MARI AGOTE

Bigarren olatuan gaitzak jo gintuen emaztea eta biok, batera, eta hamalau egunez etxean egon behar izan genuen. Egun bat pasatu nuen txarra sukarrarekin, gainontzean ondo eman genion buelta. Orain hirugarren olatua arindu den arren, datuei zorrotz erreparatzeko jarraitzearen aldekoa naiz, horien arabera neurrien gaineko erabakiak hartzeko; Aste Santuek ez dute salbuespena izan behar horretan. Gutxiengo kontrol batek egon beharra du, bestela hau “desmadre” hutsa delako. Telebistan-eta ikusten diren irudiekin argi dago, buru-arin asko dagoela munduan. Gazteek esaten dutenean “bizi” egin nahi dutela, nik esaten dut edadetuek bizirik jarraitu behar dutela, eta zaila da oreka bilatzen. Esperantza handia dut txertoarengan, eta uste dut gero eta jende gehiago txertatu ahala hau buelta hartzen joango dela. Datorren urte bukaera aldera egoera hobea izango dela iruditzen zait.



NESTOR KAPEROTXIPI

Nire kasuan, negu partea ondo pasa dut, Kanariar uharteetan bi hilabetetik gora egin ditudalako. Lan bila jo nuen hara azaro amaieran, eta aukera gutxi zegoen. Ia ez zebilen inor jatetxeetan. Ondo pasatzeko aukera izan dut, baina egoera nahikoa tristea zen orokorrean. Orain, datuak hobera egin dutela eta, zentzudun jokatzeko jarraitu behar dugula iruditzen zait, baina aldi berean, Europa barruan zertxobait mugitzen hasteko aukera eman beharko lukete, benetazko kontrolekin —eta ez orain dagoen kontrol malguarekin—. Txertoari dagokionez, errezeloz jarraitu ditut notiziak. Osasun egoera larria dela bistakoa da, baina txertoaren atzean interes ekonomiko handiak daudela iruditzen zait. Dena den, aukera dudanean hartu egingo dut, hori izango delako berriro bidaiatzeko hasteko aukera emango digun modu bakarra. Pena handia ematen dit lehen bezala bidaiatu ezin izateak.



LANDER SARASOLA

Gure bigarren umea jaiotzeko gutxi falta zela etorri zen hirugarren olatua, eta urduri ibili ginen azken egunetan, ospitalean bilatuko genuen egoerak kezkatuta. Azkenean bikotekideak eta biok sartzeko aukera izan genuen, eta arazorik gabe joan zen erditzea. Orain, zenbakiak hobera egin dutela eta, neurriak zertxobait arindu daitezkeela iritzi diot, baina oso kontuz, ardura norberak hartuz; zaila da ordea, agerian egiten ditugun gauzak ikusten diren arren, eremu pribatuan gertatzen dena ezin baita ondo kontrolatu. Aste Santuei begira, espero dut Gabonetan baino askatasun gutxiago uztea, bestela berriro garesti ordainduko dugulako. Inguruko parajeetara mugitzeko aukera ematen badigute, ni konforme. Txertoari dagokionez, 100% fidagarritasuna dutela uste dut eta bihar bertan hartuko nuke. Irakasle naizen aldetik, surrealista ere iruditzen zait txertoa nik gure aitak baino lehenago hartzeko aukera izatea, baina itxura denez, txerto motak baldintzatuta gertatuko da hori. ■■■■

"Aurreikusi nahi dugu garuneko minbizia duten pertsonak ebakuntzaren ondoren zer eboluzio izango duten"

ILEANA QUIÑONES ZIENTZIALARIA

Ileana Quiñones (Habana, Kuba, 1981) kubatarra duela hamar urte iritsi zen Euskal Herrira doktoretza tesia amaitzera, eta BCBL Basque Center on Cognition, Brain and Language-n ikertzaile koordinatzailea da. Garuna aztertzen du, eta gaur egun proiektu berritzaile batean parte hartzen ari da Biocruceseko neurozirujarekin elkarlanean.

Testua: **Aiora Larrañaga Solaberrieta**. Argazkiak: **Arnaitz Rubio Aprea**.

BBCBLn lan egiten duzu. Zein da zentro horren helburua?

Basque Center on Cognition, Brain and Language nazioarteko diziplinarteko ikerketa zentro bat da, eta kognizioa, garuna eta hizkuntza aztertzeko sortu zuten. 2000. urteko lehen hamarkadan ikerketa asko egin ziren mundu mailan elebitasunak garunean zuen onura ezagutzeko, eta ez da kasualitatea mota horretako zentro bat hemen sortzea. Izan ere, euskaldunak, jaiotzen direnetik, bi hizkuntzarekin harremanetan izaten dira, eta horrek aukera ematen du elebitasuna sakonago aztertzeko. Hamaika urtetan zehar, proiektua sendotzen eta aberasten joan da, munduko hainbat txokotatik etorri diren ikerlariak eskaini dituzten lan eta ikuspuntu anitzei esker, eta gaur egun, elebitasuna aztertzeaz harago, garuna aztertzen dugu bere osotasunean. Horrek aukera ematen digu hainbat esparrutan sakontzeko: aztertzen dugu haurrek nola ikasten dituzten hizkuntzak eta horrek zer eragin duen garunean,

eta baita ere ezagutu nahi dugu zein den jaiotzatik bi hizkuntza ikasteak haurren garapen integralean duen eragina. Horrez gain, pertsona helduen garunak ere aztertzen ditugu, ezagutzeko nola dauden banatuta trebetasun kognitiboak garunean zehar. Garuneko eremu jakin batean, esaterako, sorkuntzarekin lotutako trebetasunak lantzen dira, eta ikusi dugu arlo hori garatuta duten pertsonak desberdin prozesatzen dituztela gainerako gaiak ere.

Hainbat ikerketa lerro jorratzen dituzue BCBLn. Zer arlotan espezializatu zara zu?

Nik garuneko minbizia duten pazienteekin lan egiten dut, ezagutzeko zer gertatzen den euren buruan minbizia agertzen denean eta nola berrantolatzen den garuna lesio horri aurre egiteko. Horretarako, jarraipen pertsonalizatua egiten diegu pertsona horiei minbizia diagnostikatzen dieten unetik, ebakuntza egin eta urtebetera bitartean, beren garapena zein den ezagutzeko, eta garunaren egokitze mekanismoak aztertzeko.



Noiztik ari zara BCBL zentroan lanean?

Zentroa sortu zen 2010ean eta ni 2011n iritsi nintzen bertara. Ikerkuntza zentroko zuzendari Manuel Carreiras ezagutu nuen munduko hainbat herrialdetan gaiaren inguruan antolatzen diren mintegietan topo egiten genuelako. Bilgune horietan zientzialariok gure ikerketa lerroak azaltzen ditugu. Ni une hartan doktoretza tesia egiten ari nintzen Cuban eta Eskozian, eta Donostian amaitzea proposatu zidan. Hona etorri nintzenean Euskal Herriaz maitemindu nintzen, eta hemen geratu ginen bizitzan.

Imajinatzen dut ibilbide luzea egin behar izan duzula gaur egun duzun mailara iristeko.

Biologia ikasi nuen Kuban. Han bertan egin nuen masterra neurozientzia kognitiboen arloan, eta espezializatu nintzen garuna neuroirudien bidez aztertzen. Garai hartan ezagutu nuen Glasgoweroko [Eskozia] neuroirudien ikerketa zentroko zuzendaria, eta hark proposatu zidan doktoretza tesiaren zati bat Eskozian egitea. Urtebetez egin nuen nire ikerketa lana Eskozian, eta ondoren, Habanara itzuli nintzen BCBLren oso antzeko zentro batean lan egitera. Kubako lagunek galdetzen didatenean, esaten diet egin dudan gauza bakarra aulkia tokiz mugitzea izan dela. Dena dela, doktoretza tesia Euskal Herriko Unibertsitatean amaitu nuen, eta zentroaren espezialitatea hizkuntzen azterketa zenez, lau urtez hizkuntzen arloan ere espezializatzen aritu nintzen. Hori dela eta, gaur egun neuroirudien bidezko azterketan eta hizkuntzen arloan espezializatuta nago.

Zientzialariok etengabeko ikaskuntza prozesuan murgilduta zaudete, beraz.

Bai, gure lanaren parte da. Europako Batasunak ikerketa zientifikoak finantzatzeko diru poltsak ditu, eta zientzialariok proiektuak aurkezten ditugu deialdi horietara, gure ikerketa zientifikoa garatu ahal izateko. Beraz, horrek eskatzen digu etengabe ikertzen, ikasten eta ideiak garatzen aritzea.

Zure ikerketa lerroan, esaterako, ba al duzu helburu jakinik markatuta?

Kuban lan egin nuen zentroan ikerketa translazionala jorratzen zen, hau da, ikerketak egiten genituen horiek aplikatu eta gizartean ekarpena egiteko, azken finean, hori baita zientzialari guztion helburua. Dena dela, BCBL nahiko zentro berria da, eta Eusko Jaurlaritzak sortu zuen oinarritzko ikerketa egiteko, etorkizunean ikerketa translazionala egin dezan,

baina prozesu horretan gaude oraindik. Guk, esaterako, sortu nahi dugu tresna bat aurreikusteko garuneko minbizia duten pertsonen zein bilakaera izango duten ebakuntzaren ondoren, eta nahi ditugu sortu erreminta pertsonalizatuak garuna birgaitzeko. Izan ere, kasu bakoitza mundu bat da; batetik, minbiziak garuneko zonalde desberdinetan eragin dezakeelako eta horrek baldintzatzen duelako pazienteen egunerokoa, eta, bestetik, garuneko minbiziak desberdin eragiten diolako pertsona bakoitzari. Horregatik, guretzat oso garrantzitsua da aurreikustea zein izango den gaixo horien eboluzioa, informazio horrek etorkizunean eragingo dieten erabaki garrantzitsuak hartzen lagundu diezaiekelako: ebakuntza egin ala ez erabakitzeo, esaterako.

Nola ikertzen duzue hori?

Lehen esan dudan bezala, ikerketak pertsonalizatuak izaten dira. Gaixoez urteak pasa ditzakete inolako sintomatologiarik izan gabe, baina gerta daiteke bat-batean buruko min handi bat sentitzea edo epilepsia krisi bat ematea. Orduan, neurozirurgia zerbitzutik BCBLra bideratzen dituzte eta hemen garunaren azterketa sakona egiten diegu; normalean bi egun oso pasatzen dituzte. Lortzen ditugun datu horiekin guztiekin puzzle antzeko bat osatzen dugu, ezagutzeko zein zonalde dauden kaltetuta eta zer egin dezakegun ebakuntzan zehar. Izan ere, oso proiektu berezia da, ebakuntza egiten den bitartean pazienteak esnatu egiten delako eta nirekin batera hainbat ariketa egiten dituelako. Ariketa hauek ebakuntzaren aurretik eta ebakuntzan zehar egiten ditu pazienteak: kalkulu matematikoak, hitzak irakurri, esaldiak sortu, marrazkiak izendatu... Horrela, mapatu dezakegu garuna zuzenean, eta ikus dezakegu garuneko zein zonalde dauden kaltetuta eta zein dauden ondo; horrela, atera dezakegu ahal dugun tumore kantitate handiena, ondo funtzionatzen duten zonaldeak bere horretan utziz, eta ekiditen ditugu ebakuntzak sortu ditzakeen ondorioak.

Adibidez, aztertu dugun azken kasuari urtebetez egin genion jarraipena. Ebakuntza egin zioten 2019ko maiatzean, eta orain berriz ere tumorea agertu zaio eta bigarrenaz sartu da operazio-gelan. Harrigarria da egoera desberdinetara egokitzeko garunak duen malgutasuna, baina pertsona batetik bestera egokitze gaitasuna aldatu egiten da, eta pertsona bakoitzaren bizitza esperientziak zuzenean eragiten du malgutasun

horretan; adibidez, frogatuta dago zenbat eta gehiago ikasi edo hizkuntza gehiago jakin, handiagoa dela egokitze gaitasuna. Aurretik aipatu dudan paziente hori, esaterako, 40 urte inguruko mutil bat da; oinarritzko ikasketak ditu, eta mekanikaria da. Azterketa egin genion lehen unean ohartu ginen ikaragarritzko gaitasuna zuela, eta nahi izan balu NASAko ingeniaria izateko gaitasuna ere bazuela. Azterketak egiterakoan, pazienteak konparatzen ditugu lesiorik gabeko pertsonekin, eta mutil honek, tumore batekin ere, froga guztietan lesiorik gabeko pertsonen batez besteko mailatik gorako emaitza lortu zuen. Sintomatologia arina izan du, eta oso ondo errekuperatu da ebakuntzatik bi kirurgietan.

Proiektua egiteko jakintza arlo anitzeko taldea duzue, beraz.

Mota horretako ebakuntzak hiru tokitan egiten dira Espainian: Madrilan, Bartzelonan eta Bilbon.



**"HARRIGARRIA DA GARUNAK
EGOERA DESBERDINETARA
EGOKITZEKO DUEN GAITASUNA"**

**"GIZARTEA OROKORREAN EZ DA
JABETZEN IKERKETA ZIENTIFIKOAK
DUEN GARRANTZIAZ"**

Hasiera batean, ez zegoen arlo horretan espezializatutako zirujaurik Euskal Herrian, baina Madrilgo aditua etortzen da hona Biocruceseko departamenduko neurozirujau burua eta gainontzeko neurozirujauak formatzera. Bi arlotan banatutako kideok osatzen dugu taldea: batetik, Biocruces Ikerketa Institutuko bi neurozirujauak eta, bestetik, BCBLko bi ikerlari koordinatzaileok eta hemen lanean ari diren beka-dunek.

Aipatu nahi dut kasualitatez sortu zela proiektua. Txilen bizi diren euskaldunen komunitateak jardunaldi batzuk sortu zituen, eta arlo desberdinetako adituak gonbidatu zituzten bertara, tartean Manuel Carreiras BCBLko zuzendaria. Hasiera batean, zientziarekin harreman handirik ez zuen kultur arloko ekimena bazen ere, Carreirasek hegazkinean ezagutu zuen topaketara gonbidatu zuten neurozirujau bat; norberaren lan esparruaz hitz egiten hasi ziren, eta horrela sortu zen proiektua. Txiletik bueltatu zenean, Carreirasek proiektuan parte hartu nahi nuen galdetu zidan, eta bi aldiz pentsatu gabe baiezkoa eman nion, oso interesgarria iruditzen baitzait.

Azken urtean, COVID-19a dela eta, komunitate zientifikoaren lanean arreta handia jartzen ari dira komunikabideak eta gizartea. Atzeman al duzu zuen lana gehiago baloratzen dela?

Egia esan, ez. Ikerketa zientifikoaz gehiago hitz egiteak ez baitu esan nahi horri garrantzi handiagoa ematen zaionik. Zenbaitek diote diru gehiago inbertitzen dela zientzian, baina ni oso eszeptikoa naiz. Guri, esaterako, izurrite garaian kendu egin digute Espainiako Gobernuak bikaintasuna aitortzeko ikerketa zentroei ematen dien Severo Ochoa kondekorazioa. Hori ez da gertatu gure maila gutxitu delako, ikerketa zientifikora bideratzen zituzten fondook koronabirusaren azterketara bideratu dituztelako baizik. Hau da, erakundeak ez dira ari zientzian gehiago inbertitzen. Minbiziaren aurkako elkarteak, esaterako, kanpaina bat abiatu du gainontzeko patologiak ikertzen jarraitzea ere ezinbestekoa dela aldarrikatzeko. Izan ere, gizartea orokorrean ez da jabetzen ikerketa zientifikoak duen garrantziaz, beharra duten arte.

Kubako errealitatea ondo ezagutzen duzu. Uste duzu han gehiago inbertitzen dela zientzian?
Kuban oso ikuspegi desberdina dute. Hemen, ikerketa zientifikoan pisu handiagoa du ekonomiak. Nik nire ibilbidean zehar zortea izan



dut, beti besoz beso lan egin dudalako ikerketa zentroetako zuzendariekin eta horiek beren lanarekin konpromiso handia duten pertsonak direlako, baina Kuban formatu ninduten zientzialaririk bezalakorik ez dut inon aurkitu. Hamabost herrialde baino gehiagotako ikerketa zentroak ezagutu ditut, eta Kubako zientzialariek ikerketarekiko eta gizartearekiko duten konpromisoa ez dut beste inon topatu. Kuban oso barneratuta dugu gizarteak gu formatzeko egin duen ahalegina eta uste dugu itzuli egin behar dela gure ekarpentxoak eginez. Are gehiago, uste dut Kuban jaso nuen formazioari esker lortu dudala BCBL bezalako ikerketa zentro garrantzitsu batean tokia egitea, eta oso eskertuta nago. Horregatik, hemen ere saiatzen naiz filosofia hori jarraitzen, eta behar den denbora guztia eskaintzen diet nire ikasleei, baita nire lana egiten goizaldera arte gelditu behar badut ere.

Zientzia gizonezkoen esparrua dela uste izan da mendeetan zehar. Zuk ere pertzepzio hori al duzu?

Datuak aztertzen baditugu, emakume gehiago iristen dira unibertsitatara, baina doktoretza ondorengo ikasketetan gehiago dira gizonezkoak. Ni neu pribilegiatua sentitzen naiz, beti lan egin dudalako ikuspegi feminista duten pertsonekin, nahiz eta gehienak gizonak izan. Dena dela, egia

da, lan egin dudan zentro guztiak gizonezkoek zuzendu izan dituztela, baina pertsona horiek ez naute inoiz baztertu emakumea izateagatik. Are gehiago, BCBLn ama izan naiz, eta erraztasun guztiak eman dizkirate bi esparruak kontziliatzeko, eta semeak nirekin eramaten ditut munduan zehar egiten diren mintegietara. Nire doktoretza tesia aurkeztu behar nuen egunean, esaterako, erditzeko jarri nintzen. Tribunalak osatzen zuten adituak dagoeneko Donostian ziren, eta BCBLko zuzendari Manuel Carreirasek azaldu zien garaia baino lehen iritsi zela haurra, ezin nuela tesia aurkeztu eta hurrengo urtera atzeratu beharko genuela. Urtebete geroago aurkeztu nuen tesia: bost ordu inguru iraun zituen. Nire azalpenen ondoren tribunaleko kideek bileratxoa egin zuten, beren ondorioak adosteko, eta garai hartan haurra edoskitzen ari nintzenez, umeari bularra eman nion tartetxo batean. Halako batean, ordea, sartzeko eskatu zidaten, eta ume eta guzti sartu behar izan nuen. Ni urduri nengoen, baina Carreirasek lasaitu ninduen, esanez edoskitzea munduko gauzarik normalena dela, eta ez dela horregatik lotsatu behar. Hala, umeari bularra ematen ari nintzen bitartean izendatu ninduten doktore.

Esan ohi da neska askok zientzia ez dutela aukera moduan ikusten. Zuk argi izan al zenuen zientzia arloan lan egin nahi zenuela?

Uste dut tokian tokiko kulturak guztiz baldintzatzen duela bertako haur eta gazteen heziketa. Nik ez nuen sentitzen zientzia gizonezkoen arloa zenik, agian Kuban hezi nintzelako izango da. Han oso garrantzitsua da formazioa, eta haurrak oso txikiak direnetik bultzatzen dira ikastera. Nire ama haur hezkuntzako irakaslea zen, eta nire aitak batxilergora arte ikasi zuen eta hainbat lan egin zituen bere ibilbidean zehar. Dena dela, eurentzat oso garrantzitsua zen beren seme-alabek ikastea, batez ere nik ikasketak egin eta etorkizun oparoa izatea. Gogoan dut 5 urte nituenean aitarekin parke teknologikoaren aurretik pasa nintzela kotxez eta esan zidala bertan lan egiten zuten gizon eta emakumeak oso-oso garrantzitsuak zirela; buruan geratu zitzaidan betirako. Beti esan zidaten nahi nuena lor nezakeela, eta halaxe egin nuen. Kubak baditu alderdi txarrak, baina bertan jasotzen dugun formazioa eta heziketa bikaina da. Ni naizena naiz, Kuban jaio nintzelako eta bertan ikasteko aukera izan nuelako. ■■■



*Aprobetxatu martxoan ditugun sofa likidazioa. PASA eta IKUSI
Ez galdu aukera paregabe hau*



Estrata 3. Pab. Errasti (Aginaga Auzoa) 20170 USURBIL
Tel./FAX-a: 943-36 93 59 · Mugikorra: 676 35 56 35
mueblesaguinaga@mueblesaguinaga.com



BIYONA

BARNE DISEINUA ETA ERREFORMAK | INTERIORISMO Y REFORMAS

etxea sukaldeak
bainugela ...
leihoak etxeko altzariak

eraberritzekotan?



Bisita gaitzazu



Geltoki bidea, 1 · ZARAUTZ · ☎ 943-13 50 16 · www.biyona.net

KARKARA LAGUNTZAILE

Zuen beharra izaten jarraitzen dugu. Babestu Km0 hedabideak.



Egin zaitez bazkide!

Bazkide egiteko: bazkide@ukt.eus • 688 85 96 82

NON DAGO KARKARA?



Karkara pertsonaia aldizkariaren zein orrialdetan dagoen ezkutatuta aurkitu behar da, eta erantzuna karkara@karkara.eus e-posta helbidera bidali martxoaren 15a baino lehen. **Saria:** Patxi Oilden Harategiak emandako produktu sorta. Karkarako Komunikazio Taldean bazkide izatea da baldintza bakarra.

KARKARAKo bazkide Ainhoa Gozategik irabazi du K5 txakolin kaxa.



Obesitatea, isilarazitako pandemia



TESTUA: RAFA GONZALEZ DE TXABARRI

Izurriteak gizartea irauli zuenetik, osasunak —edo osasun krisiak, zehatzago esanda— erabat baldintzatu digu eguneroko bizitza. Aldi berean, lehendik zetozen beste *osasun larrialdia*k ere estali ditu pandemiak, obesitateak eragindakoarekin gertatu den bezala. Arazo horrek lotura zuzena du jarduera fisikoarekin, eta horren gainean ariko naiz artikuluan.

Aurrera jarraitu aurretik, kontzeptu bat argi utzi nahi dut: lau milioi urteko eboluzioak argi erakusten du gizakia mugimenduan egoteko egina dagoela, eta mugimendu ezak gaixotu egiten duela gorputza. Bestalde, definizio batzuk ere eman nahi ditut, termino batzuk nahastu egiten direlako sarri. Zer da jarduera fisikoa? Gorputza mugimenduan jartzen duen edozer jarduera: umeen jolasak, lanean egiten diren mugimenduak, oinez batera edo bestera joatea... Jarduera fisikoa modu antolatuan egiten denean, helburu eta maiztasun batekin, ariketa fisikoa egitera pasako ginateke; lasterke bat prestatzea izan daiteke adibide bat. Azkenik, ariketa fisikoa modu antolatu eta arautuan egiten denean —aurkariekin, talde baten barruan, federazioen bidez...—, horri kirola deitzen zaio.

Osasunaz ari garenez, gorputzari on egiten diona jarduera fisikoa dela nabarmendu behar da, eta horrek ez du zertan ariketa fisikoa edo kirola izan behar. Lanera edo eskolara oinez joatea izan daiteke jarduera osasungarri bat, etxera eskaileretatik igotzea, dantza egitea... Gorputzari on egiteko modu asko daude, era guztietakoak.

Haur eta gaztetxoengan zentratuz, jarduera fisikoa egiterakoan burmuinaren eraketa hobetu eta handitu egiten da; burmuineko neuronen arteko loturak handitu eta sendotu egiten dira, eta horrek laguntzen du funtzionamendu eta errendimendu akademiko hobe izaten. Horri lotuta, ikerketa zientifikoek diote haurren obesitate maila ikaragarria dela gizarte modernoan. Etorkizunean, ugaritu egingo zaizkie metabolismoari lotutako gaixotasun kronikoak: diabetesa, hipertentsioa, alzheimerra... Ikertzaileek

JARDUERA FISIKOA DA GORPUTZARI ON EGITENA DIONA, ETA HORREK EZ DU ZERTAN KIROLA IZAN BEHAR

berriki azaldu dutenez, egungo gazteen belaunaldiek, historian lehen aldiz, haien gurasoek baino bizi itxaropen txikiagoa izango dute. AEBetako datuek frogatzen dute hori.

Gaiaren larritasunaz ohartuta, Munduko Osasun Erakundeak gomendio zerrenda eman zuen argitara iaz, *Mugimendu bakoitza baliagarria da* izenburupean. Argi dago arazoak gizarte osoaren inplikazioa eskatzen duela, norbanako zein ereakundeena. Guraso eta hezitzaileoi dagokigunez, ardura handia dugu.

Hezkuntza esparruan bada arrakasta izaten ari den proiektu interesgarri bat: Eskola Osasungarriak. Horren bidez, hezkuntza zentro batek hiru urteko formazioa jasotzen du, eta gero eskolan osasun plan bat gauzatzen da, lau arlo nagusiren bueltan: jarduera fisikoa, elikadura osasungarria, higiena eta aisialdi osasungarria. Lan hori guztia ikuskatzaileek berrikusten dute, eta gauzak ondo egin ahala, urtero mailaz igotzen joaten da ikastetxea.

Estatu mailan Eskola Osasungarriak zigilua jasoko duen lehen ikastetxea Zaragueta Herri Eskola izango da, eta Europako Batasunean zabalduko den ziurtagiria jasoko du laster. Bide bera jarraitzera gonbidatu nahi ditut gainontzeko eskolak ere. ■

In memoriam: **Maria Sagrario Miralles Arostegi**

Goiko Kaleko *eskola txikian* 35 urtez egin zuen lan Maria Sagrario Mirallosek, eta heziketarako zuen esku onak marka laga du belaunaldi askorengan. Urtarrilaren 31n hil zen, igande goiz batez, 85 urte zituela.

Testua: **Iñigo Gaiton.**
Argazkiak: **Utzitakoak.**

Maria Sagrariok senari segika eta ikasketarik gabe hezi zituen ehundaka oriotar. Hala adierazi zion KARKARari 1990eko ekainean: “Inoiz ez dut ikasketarik egin umeekin lanean aritzeko”.
Ordurako hiru hamarkadatik gora zeramatzan Goiko Kaleko eskolan lanean, eta ikasturte hartan hogeita hamaika umeren ardura zuen. Bere esanetan, “ondo” moldatzen zen kopuru horrekin; ez ziren asko, lanean hasi zen urtean ehun eta berrogei izan baitzituen. Izan ere, herriko eskoletan ez zen Haur Hezkuntzako gelarik hasierako garai haietan, eta 6 urte egin arte izaten zituen umeak berarekin; txikienak urtebeteren bueltakoak, ia denak “oinez ikasi eta gero” hasten baitziren haurtzaindegira joaten. Haurrekin lan egitea “oso polita” zen Maria Sagrarioarentzat, aldizkari zaharrak jasotzen duenez. Hala ere, lanean asko gozatu izanagatik ere, gogotik jardun behar izan zuen: ehun eta berrogei ikasleren zaintza “gehiegi” zela aitortu zion kazetariari, “oso-oso latza”.

Sagrarionetik pasatako gehienek goxotasunez gogoratzen dituzte hango oroitzapenak. Umeekin oso atsegina eta hurbilekoa zen eguneroko lanean, baina indar handikoa eta zorrotza ere bai, aldi berean. Euskararekiko zuen ardura da horren adierazle argienetakoa:



“Ume erdaldunei dena euskaraz egiten zaie hemen, hitzik ere ez erdaraz”. Erdaldun denak euskara ikasita ateratzen omen ziren eskola txikitik.

Pozik eta penatuta, erretiroan

Pilliku plazako eskolak 1996ko uztailean itxi zituen ateak, Santio Egunaren bezperan. KARKARak Maria Sagrariorekin hitz egiteko aukera izan zuen orduan ere, erretiroaren gainean. Argi azaldu zituen ofizioak eragiten zizkion sentimenduak: “Beti sentitu dut nahigabea oporrak bertan ikusitakoan, bai baitakit ume horietako batzuk ez direla bueltatuko ikasturte berrian. Baina, oraingo honetan akabo, ez asko eta ez gutxi. Gogorra izango da niretzat”, zioen agurrean.

Hasiera batean, urtebete geroago jubilatzeko asmoa zuen, urteurren handi bat ospatzeko aukera izan zezan: Maria Sagrarioren amonak, Maria Kamino Arregik, 1897an zabaldu zuen haurtzaindegia —14 urte zituela—, eta hirurogeita bost urtez jardun zuen han lanean. 1996an ateak itxita, Gipuzkoako haurtzaindegirik zaharrenetakoa izan zena ez zen 100 urte betetzera iritsi, oso gutxigatik.

Maria Sagrario, gurasoek esker ona adierazteko egindako omenaldi batean. Urtea: ezezaguna.

**UME ERDALDUN DENAK
EUSKARA IKASITA
ATERATZEN ZIREN
PILLIKU PLAZAKO
HAURTZAINDEGITIK**



Bi arrazoi nagusik bultzatu zuten erretiroa hartzera. Batetik, herriko eskolak bi urteko haurrak hartzen hasi zirenetik, nabarmen murriztu zitzaion ume kopurua. “Hain haur gutxirekin —hogeita zazpi azken ikasturtean— zaila da eskolako martxari eustea, etxearen alokairua, aseguruak eta bestelakoak pagatu behar izaten direlako. Diru asko da, eta laguntza gutxi jasotzen dugu”. Bestalde, aitortzen zuenez, jubilatzeke adina ere bazuen ordurako.

Atzera begira

Maria Sagrariok elkarrizketa eman zuen 2014an Orioko Curriculum Sortzen proiekturako. Atzera begira jarrita, gogora ekarri zuen amonak nola egin zion eskola hartzeko gonbita: “Drogerian egiten nuen lan sailtzaile, eta amonak esan zidan, ordurako gaixorik zegoela, ea hura utzi eta umeak hartuko nituen”.

Ofizioaz gain, jenioa ere amonarengandik jasoa omen zuen. “Amona izaera handiko emakumea zen. Makina bat aldiz esaten zidaten, niri hark pegatu zidala jenioa... *Obra* horretan ibiltzeko, behar da pixka bat nahi eta nahi ez!”.

Bideoz jasotako hizketaldian, samurtasunez beteriko hitzak baino ez ditu haurrentzat. “Bizitzeko poza ematen dute. Umeekin egiten nituen orduak izaten ziren niretzat goxoenak. Umeek goxotasuna ematen dizute, handia gainera, eta zuk hartu egiten duzu. Bestela ez nituen hainbeste urte egingo lanean!”.

Urte luzez gizarte tradizionalan lan egin eta bizi izanagatik, garai modernoek traza hartzeko gai izan zen Maria Sagrario azken urteetan: “Oraingo umeak lehengoak baino askoz ere espabilatuagoak dira! Gurasoak ere diferenteak bilatzen ditut. Zertan? Ez dakit, baina oso diferenteak”, azaltzen du bideoan.

Bere heriotzean, gozoa izan zen herritarrek emandako azken agurra, han eta hemen jasotako esker oneko hitzak lekuko. ■

**BERE HERIOTZEAN,
GOZOA IZAN ZEN
HERRITARREK
EMANDAKO AZKEN
AGURRA**



**USURBILGO
LANBIDE
ESKOLA**

Ate irekiak

Martxoak

10

HARTU
HITZORDUA!!





Erdi Maila: 17:00
Goi Maila: 18:00



943-36 46 00



adkomunikazioa@lhusurbil.eus

www.lhusurbil.eus



12 hilabete, dagoeneko!

Egun gutxi barru urtebete izango da koronabirusak gizartea irauli zuenetik. Lehengo eguneroko bizitza eten zenetik, normaltasun berrira ohitzea beste aukerarik ez du izan jendarteak: aforo mugak, jende ilarak, eskuak etengabe garbitu beharra, maskarak... Bizi ohitura berrien isla da honako argazki sorta hau.

Argazkiak eta testuak: **Aiora Larrañaga Solaberrieta - Iñigo Gaiton**



MERKATARIAK, BABES NEURRIKIN

Gel hidroalkoholikoa, EPI biserak, maskarak, eskularruak... Eguneroko bizitza berrian, COVID-19aren aurkako babes neurriekin ibiltzera ohitu da jendea. Argazkian herriko merkataria bat ikus daiteke, babeserako materiala soinean, itxialdiaren ostean denda ireki eta gero. Udaberrian ia bi hilabetez izan zituzten dendak itxita, eta maitzaren 4an itzuli ziren lanera, neurri oso zorrotzekin. Ezarritako araudiak eragindako nahasmenagatik, "nola jokatu asmatu ezinik" zebiltzala adierazi zuten batzuek.

HAURRAK KALERA

Martxoaren 15ean ezarri zuen itxialdi agindua Pedro Sanchez Espainiako Presidenteak, eta ia hildete eta erdiz etxean sartuta egon ostean, apirilaren 26an, 14 urtetik beherako umeei eta gaztetxoei, ordubetez bazen ere, kalera ateratzeko aukera eman zitzaien. Hala, egun horretan, goizean, pixkanaka hasi zen mugimendua sumatzen kaleetan, eta hainbat haur eta gaztetxo atera zen kalera gurasoek lagunduta. Etxetik kilometro bat urrundu ahal zitezken eta parkeetan jolastea eta gainontzeko haurrekin biltzea debekatuta zegoen artean.



ORIOKO ZAINZA SAREA

Orioko Udalak eta herriko eragileek elkarlanean zaintza sarea antolatu zuten itxialdiaren hasieran. Izan ere, herriko zerbitzuak eta baliabideak itxita, egoera zaurgarrian zeuden oriotarren egoera okertu egingo zela ohartu ziren, eta larrialdi egoerari aurre egiteko Orioko Zaintza Sarea sortu zuten eta 130 boluntario inguruk izena eman zuten ekimenean. Bestalde, Ostargi taldeko 80 jostun inguru maskarak eta mantalak egiten hasi ziren ospitaleetarako, osasun zentroetarako eta adinekoen egoitzetarako.



ERROMERIAK, ONLINE!

Pandemia garaian kontzertu gutxi emateko aukera izan denez, musikari askok Internetera jo dute emanaldiak egin eta publikoarekin konektatzeko. Hala, oso ohikoa bihurtu da musika saioak ordenagailuko pantailaren bidez jarraitzea. Igandero Aristerrazun jarduten duten trikitilariak ere plaza birtualean izan dira azken hilabeteotan, eta etxeetan dantzan jarri dituzte erromeria-zaleak; baliabide digitalen bidez, lortu dute tradizioari eustea. Trikitilariet gain, Aiako Testaje Zentroak ere Internet bidez egin behar izan zuen Arraza Anitzeko Ganaduen Enkantea udaberrian. 38 zekor-idisko jarri zituzten salgai azoka birtualean, 1.600, 1.900 eta 2.200 euroko prezioetan.



2020KO KONTXAKO BANDERA

2020ko martxoan eten egin ziren kirol txapelketak, eta ez ziren abiatu udazkenara arte. Dena dela, arraun estropadak jokatu ziren, eta Orioko emakumezkoen txalupak Donostiako Bandera irabazi zuen. Herrian ez zen ohiko errezibimendurik izan, baina estropalariet izan zuten herritarren igurtzia jasotzeko aukera.



"DOMINGEROEN" ILARAK, SEMAFORO GORRIA HONDARTZAN

Ikastetxeetan, dendetan, tabernetan, etxe barruan... Aforo mugak ezartzea izan da COVID-19aren aurkako osasun neurri esanguratsuenetakoa, eta hondartzak ez ziren salbuespen izan iazko uda denboraldian. Semaforoak jarri zituzten sarbideetan jende kopurua mugatzeko, eta egun batzuetan, ilara luzeak izan ziren. Abuztuan, kasu, bost bider jarri zuten semaforo gorria Antilla hondartzan.

ESKOLARA BUELTA

Etxean denbora luzea egin zuten haurrek udaberrian, eta martxotik ekainera bitartean modu birtualean bukatu zuten ikasturtea. Irailean berriro itzuli ziren ikasgeletara, eta ordutik, protokolo zorrotzak bete dituzte. Zalantza handiekin hasi zuten eskolako martxa, baina zorionez, datuak onak izan dira hezkuntza zentroetan. Konfinamendu puntualak egon arren, orokorrean modu presentzialean egiten ari dira ikasturtea; ez da gutxi, azken bi hilabeteetan pasatako bi olatuak kontuan izanez gero. ■■■





Esterotipoak ikasketetan

Zientzia arloan diharduten emakumearen eta neskaren nazioarteko eguna izan zen otsailaren 11, eta zer pentsatua eman zidan egun horrek. Bada, badira neskoiei zientzia edo STEM ikasketetan murgiltzea eragozten diguten hainbat muga. STEM zientzia, teknologia, ingeniari eta matematika biltzen dituen hezkuntza da, eta nabaria da mota horietako ikasketetan neska eta mutil ikasle kopuruaren arteko desberdintasuna. Zergatik ote da hori?

Batetik, estereotipoen kontua dago. Inkontzientetik egiten badugu ere, neskoko sozietatearen presioa jasaten dugu, batez ere, gure ibilbide profesionala aukeratzeko garaian. Zenbat aldiz entzun

dugu ingeniari eta mutilen kontua dela? Edo mekanika, edo informatika? Gauza bat esango dizuet, ni neska naiz eta ikasketaz ingeniaria. Zer arraroa ezta? Ziur nago batzuek hori pentsatuko duzuela, baina zergatik? Ezin al dugu neskok ere benetan nahi dugun ibilbidea hartu?

Agian galdetuko duzue zergatik aukeratu nuen ingeniari eta ikastea. Ez nuen estereotipoak hausteagatik egin, edo gizarteari kontra egiteagatik, ezta gutxiagorik ere.

ARGI IZAN BEHAR DUGU ZIENTZIA EZ DELA EZER EMAKUMEEN EKARPENIK GABE

Atentzioa eman zidalako aukeratu nuen, benetan nire burua bertan ikusten nuelako, hitz gutxitan esanda, gustuko nuelako. Pentsa, niri ere hasieran arraroa egin zitzaidan ikasketa horiek gustuko izatea, eta askotan pentsatu izan nuen, ez al dira ikasle guztiak mutilak izango? Zer egingo dut nik horien artean? Gauza bat esan nahi dizuet: sekulako ezustekoa hartu nuen nire lehen klase egunean; klaseko erdiak neskak ginen!

Aipatu behar dut nik egindako ingeniari eta gradua ez dela mekanika edo elektronika bezain teknikoa, baina hala ere harrituta geratu nintzen. Gradu tekniko horietan arre jarritz gero, berriz, egia da neska gutxi ikusten zirela, baina begibistakoa da joera hori aldatzen ari dela eta neskok ere

HAUXE BAI JENEROA!



NIRE HONETAN



RIKARDO UZKUDUN

Itzaoko tapoia

Amerikan bada errepide bat kontinente osoa zeharkatzen duena. Argentinatik Alaskaraino joan daiteke, 47.000 kilometro ditu, Panamerikana izenez ezagutzen da. Badu, ordea puntu batean eten bat; errepidea desagertu egiten da 108 kilometrotan, eta gero, ostera, agertzen da aurrera jarraitu nahi duenarentzat. Juxtu Hego Amerika eta Erdialdeko Amerika elkartzen diren lekuan dago eten hori, Panama eta Kolonia artean: Darien-eko tapoia deitzen zaio.

Aurten zortzi urte bete dira Gipuzkoako bidegorrien plana osatu zenetik. Aurreikuspenen arabera, 2021erako Usurbil-Orio zatia egina egon beharko zukeen. Planoen arabera, trenbide ondotik joan behar du bideak, Motondotik Txokoaldera. Ez dirudi berehala egingo dutenik. Pena handia ematen du, hori eginda, kasik dena bidegorrietatik eta ordekan egin ahal izango baikenuke, bizikletaz, Oiartzuneraino.

Ameriketan, baso itxia delako, migratzaileek eta narkotrafikanteek izan ezik, gainontzekoek airez edo itsasoz zeharkatzen dute Dariengo tapoia. Guk ez dugu horrelakorik egin beharrik, errepidetik edo Igeldotik joan gaitzke Donostiara. Baina, ez al litzateke ederra, paseoan, Itzaotik barrena Aginagara joan ahal izatea? ■

ingeniaritzetan gure lekua hartzen ari garela. Aipatu dudanaren antzekoa gertatzen da, adibidez, fisika edo matematika alorretan ere. Dena dela, bada garaia norberak nahi duen ibilbidea hartzeko, ezta?

Bestalde, zientzia arloan emakume erreferenteak falta direla ere ukazina dela iruditzen zait. Jendeak ezagutzen duen emakume zientzialari ospetsu bakarra Marie Curie da. Hala ere, historian zehar izan dira zientzia aldatu duten hainbat emakume, baina ez zaie behar besteko garrantzia eta ospea eman. Gainera, zenbaitek esaten dute emakumeak ez direla iritsi gizonezkoen maila izatera, baina ziur nago hori ez dela egia, gizonezkoak txalotu izan diren bitartean, emakumeen lana ezkutatu egin

baita hamarkada askotan zehar, edo ez zaie behar besteko merezimendua eman. Hala ere, argi izan behar dugu zientzia ez dela ezer emakumeen ekarpenik gabe.

Amaitzeko, neskei mezutxo bat helarazi nahi nieke: egin jaramon zuen bihotzei eta aukeratu benetan nahi duzuen eta gustuko duzuen ibilbidea. Ez utzi zuen ametsak alde batera, ingurukoek beste amets batzuk dituztelako eta zuek horiek betetzea nahi ez dutelako. Gizonentzat direla esan ohi den ikasketa edo lanpostu horiek edozeinenak izan daitezke, eta gizonezkoak bezain abilak edo trebeagoak izan zaitezke burutu beharreko funtzioan.

Beraz, hauts ditzagun estereotipoak!
#otsailak11 ■



Oilarra kukuruka



ARITZ PARDINA

Hitzok orri hauetan idatzi ditudan lehenak dira. Gutxinaka ezagut nazazuen, nire zaletasun baten berri emango dizuet: egunerokotasunean hautematen ditudan kontraesanak idatziz zerrendatzeko ohitura dut. Afizio onuragarria da, etxean egiten ditugun gehiegizko orduak arintzen lagun baitezake. Aipatutako orriak errepasatzen nenbilen goiz batean, hitz hauek aurkitu nituen azpimarratuta: «Ez dugu erlijiorik nahi, baina jainko berriak sortzen ditugu». Garrantzia handiko gaia iruditu zitzaidan, eta garatzea erabaki nuen. Helburu hori betetzeko, Xipri Arbelbideren *Oilarra kukuruka* saiakera berrirakurri nuen. Arbelbide 1934an Heletan jaiotako euskal idazle, kazetari eta apaiza da. Obra hau edonori interesa dakioke, sinestuna izan edo ez. Ni, ez naiz sinestuna. Dena dela, ez dut uste elizak errealitateari buruz egiten duen juzgu oro atzerakoia denik. Aitzitik, Arbelbidek gaurkotasun handia duten hainbat irakaspen eman ditu erlijioaren ikuspuntutik.

Esaterako, Arbelbidek garbi erakusten du fabula erlijiosoen oinarrian fedeaz bereiz daitekeen balioen filosofia bat dagoela. Idazlearen iritziz, kontakizun hauek zoriontsu izateko argibideak eskaintzen dizkigute: oraina, elkarbizitza eta maitasuna oroz gain balioztatzea. Ildo horretatik, azpigai guztien artean badago liburua hariztatzen duen auzi bat: Arbelbiderek, teknologia eta baliabide materialak ongizatearen oinarrian jarri direnez, zoriontsu ez garela ondorioztatu du. Funtsezko hiru balio horien galera azpimarratzeko, edonori ezaguna egingo zaion adibide bat aurkeztu du idazleak: «Oro it naiz lau gazte ikusirik jarriak Pyrénées ostatu aitzinean, Santanderko plazan, geldi-geldia bakoitza bere telefonoan mintzo edo SMS igortzen ari. Uste nuen elkarretaratuak zirela zenbait minutu goxoan pasatzeko elkarrekin kalakan. Baina ez!». Egoera horrek ezin hobe erakusten du orainaren galera zer den. Zentzu horretan, gure zoriontasunaren oinarria geroan ezarri dugula salatzen du Arbelbidek. Gainera, etorkizunean izan genitzakeen gauzen grinetan bizi garen bezala, elkarbizitza beraren nozioa ere galdu dugula uste du autoreak, zeren gure alboan ez, baizik, urrun daudenekin komunikatzean sentitzen baikara zoriontsu.

Azken finean, Arbelbidek jada aurreratu dugun ideia sakontzea du helburu, koadernoan idatzi nuen hura, alegia: jada ez dugu erlijiorik nahi, ezta Jainko bakan ahalguztidunik ere. Baina, horren orde, teknika, zientzia eta aurrerapenaren izenean, zoriona segurtatzen diguten Bill Gates, Jeff Bezos eta behar adina telebistako aditu jainkotzen ditugu. Bolada honetan, ordea, nahikoa frog a jaso dugu Arbelbiderekin bat etortzeko. Hain zuzen ere, azkenaldian inoiz baino Internet gehiago erabili dugu harremantzeko, baina, zoriona, aldiz, ohi baino urriagoa da. ■■■

EZ DUGU ERLIJIORIK NAHI, BAINA JAINKO BERRIAK SORTZEN DITUGU

MARKETIN ETA KOMUNIKAZIO ZERBITZUAK

08



Ikus-entzunezkoak

09



Argitalpen
digital
multimedia

01

Publizitatea



Papera

07



Identitatea
eta marka irudia

06



Diseinu
lanak

05



Webguneak eta
marketin
digitala

04



Edukien
sorkuntza

03



Komunikazio
kanpainak

02



Estrategia eta
planifikazioa



B

K

er



KH



ZH



Karta
Pintxo tradizionalak
Okindegia



Palota Kalea, 5 · 20810 Orio · Egin erreserba 943-53 61 27

OINARRI PODOLOGIA ZENTROA



Arrantzale kalea, 63 behea
ORIO
943-57 53 61
oinarri@podologia-oinarri.com
www.podologia-oinarri.com

PAKO IMAZ



PERTSIANAK
aluminioa
motorrak
automatismoak
konponketak

600 70 52 27 · 943-13 29 01
pakoimaz@hotmail.com · ORIO



Orioko
Herri
Ikastola
ORIO GARA

Abeslari kalea, 8
943-83 47 04
Fax-a: 943-13 09 38
orio@ikastola.eus
www.oriokoikastola.eus

Oreka
fisioterapia

Eusko Gudari, 54 · 943-13 35 37

Ekografia muskulo-eskeletikoa
Eskuzko terapia · Talka-uhinak
Masaje terapeutikoa · Osteopatia

Hemengo haragia.
Etzeko produktuak: tripaki, odolki,
txekorra, txorizo, kroketak...




**HARATEGI
PATXI
OLIDEN
URDATEGI**

Eusko Gudari, 25 · 943-83 00 10

**SU
KIA**
TABERNA · JATEXEA

Eguneko menua
Asteburuetakoa
Oilaskoak eramateko
Ogitartekoak
Plater konbinatuak
Terraza ederra
(alboan umeentzako parkea)

Abaromendi 38, behea 1
ORIO · 943-89 21 29



Portu
Erreteta - Jateketa

Kazolitak, baserriko oilaskoa,
parrillako errekiak, eguneko menua...

Santio Erreka auzoa, z/g · AIA
943-89 44 34

Ttipi



Eusko Gudarien, 15
ORIO
943-25 96 95

ttapa

Sinergia
fisioterapia eta ikerkuntza



Ibai ondo, 1 behea · ORIO
943-13 05 77 · 685 71 85 95
sinergiafisioterapia.com · f i

- **Lesioak:** bihurdurak, tendinitisiak, zaintiratuak, kontrakturak, hanka handituak, artrosia, kirurgia osteko birgaitzea, bizkar hezurreko arazoak, arnas gaixotasunak haur eta helduetan, lesio neurologikoak, haurdunaldirako tratamendu bereziak, erditze ondorengo errekupeazioa.
- **Tratamenduak:** terapia manuala, osteopatia, masajeak, drainatze linfatikoa, arnas fisioterapia, kinesiopaping-a, pilates, abdominaletako gimnasia hipopresiboa (GAH), REDCORD.

Noka, nika eta guka



AMAIA ZALDUA AEK

Hika edo *hitanoa* entzun bezain pronto, buruan leihoa irekitzen zait eta gure amona ikusten dut, sustrairen bati heldu nahian, aitari galdezka: "*Ta oain ze in beyau?*". Ordurako, ez zuen denbora ulertzen eta ahaztu egiten zitzaion zein zen bere lekua, nori zer eta nola esan. Gazteagoa zenean, ordea, abila zen egoeretara egokitzen. Nik izeba Juanitarekin noka entzuten nion; eta seme-alabei ere hiketa egiten zien (aitonak bezala). Haiek, oraindik ere, halaxe aritzen dira beren artean. Eta gu? Bilobak? Bada, duela urte batzuk hasi ginen bi, erdi-hitartu ondoren. Eta hark, egun, seme-alabei ere egiten die.

Txikitako garaietara itzuliz, Son Goku eta Goenkaleko hizkeretatik ere elikatu nintzela pentsatzen dut, edo kontzientziarik izan gabe, kalean ere, askotan entzun izan dudala hiketa —ziurrenik, gehiago toka—. Ondoren, ikastolan ikusten dut neure burua, DBHn, inguruan *zesatek?*, *pasaia kuadernua*, *hor zio irakaslia*... K, k eta k bakarrik entzuten nuela, alegia. Eta aldi bakoitzean, belarrian zast! Behin, mutil batek zerbait esan zidan: "*Ikustek?*".

Begiratu nion eta erantzun: "*Ta hik? Ikuste al den?*". Haserretu egin zen.

Garbi dago hikak edo hitanoak boterea eman eta kentzen duela, mailakatzea dakarrela. Izan ere, garai batean, konfiantzazko eremuetan bakarrik hitz egin zitekeen edota helduek gazteagoei, ez alderantziz. Horrela, goian zegoenak behean zegoenari egiten zion, eta, lagunen artean, taldekide sentitzeko balio zuen.

Dena den, euskara bera bezala, hizkera hau ere baztertu egin zen, prestigiorik ematen ez zuelakoan. Hara hor beste hierarkizazio bat! Lehenengo, gaztelania zegoen, frantsesa agian; ondoren, euskara; eta azkenik, hitanoa. Eta egun, ingelesa gehitu zaigu.

Beraz, ez dago zalantzarik hizkuntzak gizartearekin lotuta daudela; hau da, hiztunen jarrerak, modak edota presioak hizkuntzan eragiten dute. Hobeto ulertzeko, irakurri

**NOKA HITZ EGITEN EZ
BADUGU, ESPAZIO
SOZIOPOLITIKOA
GALDUKO DUGU,
GIZARTEAN LEKUA**

honako hauek: berorika eta latina. Desagertuta daude, erabiltzen zituztenek baztertu egin zituztelako. Horiek horrela, noka hitz egiten ez badugu, hizkuntz baliabide bat galduko dugu, bai, baina baita espazio soziopolitikoa ere, gizartean lekua. Zergatik?

Heteropatriarkatua berresten duten hizkerei indar handiagoa emango diegulako.

Esan bezala, hizkuntzak eskaintzen digun tresna da noka eta erabiltzeak lekua, ahotsa eta boterea ematen dizkigu. Horrekin ez dut esan nahi besteak zapaltzeko erabili behar dugunik, emakumeon sareak indartu eta norbera ahalduntzeko baizik. Izan ere, zenbat eta tresna gehiago izan, aberatsagoak baikara.

Tira, orain artekoarekin ados. Alabaina, noka emakumeekin hitz egiteko bada, eta toka gizonekin, ez al gara ari mailaketa egiten? Eta ez hori bakarrik, gizartea bitan banatzen dugu, ezta? Bada, bai. Horregatik, berriz diot: hiztunon esku dago hizkuntzak ematen dizkigun tresnak ezagutu eta geureganatzea, zaharkitutako arauak malgutzea, eta gizartea eraldatzea. Zenbat eta baliabide gehiago izan, askeagoak gaitun. ■



Sagasti
LEIHOAK
Tel.: 943-13 00 77 - Fax 943-53 71 50
sagasti@sagastileihoak.com
Eusko Gudari, 7
20810 Orío

Roberto Sagasti

Kalitazteko materialak
PVC eta aluminioa • Isolamendu termiko eta akustikoa
Salmenta osteko zerbitzua

www.sagastileihoak.com

BODEGON

Sarasua



info@bodegonsarasua.es | www.bodegonsarasua.com | Erreserbak: 943-83 00 05



Seguros Bilbao Santi Barranco
Orioko Ordezkaría

Endaia Enparantza, 1 • ORIO • sbarranco@segurosbilbao.com
943-11 16 00 • 688 71 48 69



Usurbil Autoak
TXAPA-PINTURA-MEKANIKA

30 URTE ZERBITZUAN

DESINFEKZIO GUNEA

ESKATU AURREKONTUA
KONPROMEZURIK GABE!

ZUMARTEGI INDUSTRIALDEA, USURBIL 943 36 10 79



URANGA
burdindegia

Opari, menaje eta erremintak

Eusko Gudari, 5 • ORIO • 943-83 12 36



ZAHARREN
BABESLEKUA
ORIO-1975

BAZKIDE EGIN NAHI DUZU?
Deitu telefono zenbaki honetara
943-83 53 98
MENUAK EMATEN DIRA

Herriko Plaza, 1



Zarageta IPI
HERRI ESKOLA 2-16

943-89 92 43
012137aa@hezakuntza.net

ZINKU

ERAIKUNTZAK

- Igeltserotza orokorra
- Etxebizitzaren erreformak
- Teilatuak
- Sukalde, komunak, etb.
- Eraisketak

deitu eta eskatu aurrekontua
konpromisorik gabe

Ander Zinkunegi
667 74 02 79

Jarri zure
iragarkia

KARKARA

943-83 15 27



AIAKO LARDIZABAL HERRI ESKOLA

Neurriak betez lanean

AMAIA SARASOLA ERROTA JATETXEA

Noiz ireki zenuten Errota jatetxea? Zer dela eta hartu zenuten erabaki hori?

Errota 2012ko otsailean ireki genuen. Ni lehen semea eduki ondoren etxean nengoen lanik gabe. Senarrak, berriz, eraikuntzan lan egiten zuen, baina ez ziren garai onenak sektore horretan. Nire ama Errotako langilea zen eta aukera ona iruditzen zitzaigun berak lagunduta jatetxea alokairuan hartzea.

Zein da lan horrek duen alderik onena? Eta txarrena?

Alde ona jendearekin duzun eguneroko hartu-emana da. Eguneroko adin eta toki desberdinetako jendearekin egoten gara. Alde txar bat aipatzekotan neke fisikoa da.

Zenbat langile zaudete lanean?

Oraitxe bertan lau langile, nire senarra Iñaki eta ni. Uda amaieran bi gehiago genituen baina orain sei gaude.

Nola eragin dizue COVID-19ak zuen lanean?

Gure lan egiteko era dezente aldatu da. Batetik, garbiketa sakonagoak egin ohi ditugu eta, bestetik, desinfekzio produktu gehiago erabiltzen ditugu.

Zein segurtasun neurri hartu duzue COVID-ari aurre egiteko?

Neurri desberdinak hartu ditugu: musukoak, mahaiaren arteko distantziak, aforoak... Jendeak ondo onartu ohi ditu arauak.

Batzuetan ostalaritza erruduntzat hartzen dela iruitzen zaizu?



Ostalaritza hasieratik ikusi da errudun moduan. Uste dut neurri guztiak bete ditugula denok, bai aforoak, baita distantziak ere...

Erabiltzailearen gain dago musuko eta gelaren erabilera. Denon aldetik jarri beharra daukagu hondar aletxoak.

Jatetxea ixtera behartuta egon zaretenean, zerbait egin al duzue aurrera egiteko?

Jatetxea itxita izan dugunean pare bat enpresatara eraman dugu bazkaria. Aiako irakasle taldea ere lagun izan dugu, eta eskerrak eman nahiko nizkieke denei gudan jarri duten konfiantzagatik.

Pozik al zaudete bezeroek izan duten erantzunarekin?

Bezeroek oso erantzun ona izan dute, bai itxita egon garenean guregana jo dutelako, baita ateak ireki ondoren gure jatetxera gerturatu direlako ere.

Momentu honetan zein da zuen egoera?

Momentu honetan irekita ditugu jatetxeko ateak eta nahiko ondo hasi gara lanean. Pozik gaude irekitzeko aukera eman digutelako. ■■■



MIREIA URBIETA
NAIA IBARGUREN

Poppy Northcutt

Otsailaren 11 Emakume Zientzialarien Nazioarteko Eguna izan zen. Egun horretan emakume zientzialari batzuk ezagutu genituen. Hona hemen horietako bat.

Poppy Northcutt 1943ko abuztuaren 10ean jaio zen Many herrian.

Matematikaria, NASAko ingeniaria eta emakumeen eskubidetan espezializatutako abokatua da. Giza kalkulagailu gisa hasi zuen bere ibilbide profesionala, eta geroago NASAko Apollo programako langile teknikoan ingeniari gisa aritu zen lasterketa espazialean. NASAren Misio Kontrolerako Zentroan lan egin zuen lehen emakumezko ingeniaria izan zen. Apollo 8.1-n.2 3 ilargiko kratera bere omenez izendatu zuten, bere lanagatik eta Apollo programaren aitzindari izateagatik.


Gero, Northcutt emakumeen eskubideetan espezializatu zen. 1970eko hamarkadaren hasieran, Emakumeen Erakunde Nazionaleko zuzendaritza batzordeko kidea izan zen.

Estatu Batuetako feminismoaren olatu berriak kausa honen alde lan egitera bultzatu zuen.

Gaur egun, boluntario gisa lan egiten du abortatzeko eskubideak defendatzen dituzten Houstoneko hainbat erakunderekin. ■■■

Handitik txikira

Makila-zomorro hauek neurriaren arabera ordenatu behar dira. Hau da, handienari 1 zenbakia emanez, eta txikienari 8.



Zein arraio!



Maripurtzil bihurri horrek zomorrotxo bat sartu nahi dio lagun bati patrikan. Ea asmatzen duzun zein aukeratu duen:

- Errepikatuta dago baina ez da ugariena
- Ipurdirik ez du agerian
- Ez du eztenik, ezta tronparik ere
- Ezin du hegan egin
- Sei zango ditu
- Aho zabalean hortzik baduela badakigu, baina ez zaizkio ikusten
- Oso bista aparta dela esan liteke.



itzala


Zein da zomorro itsusi honen itzal zuzena?

Oinutsik


Ehunzango gaixo honek oinetakoak falta ditu. Marraztuko al zenizkioke katuska polit-politak, lokatzetan sartzeko?



Labirintoa




Lagundu Pelloziriri zomorro lotsagabe horri ihes eginen. Honokoak dira jarraitu beharreko pausoak: 1 eskuak garbitu, 2 maskara erabili, distantzia errespetatu, txertoa jarri. Gogoratu pausoen segida errespetatu egin behar dela eta laukiak banan-banan aurreratu behar direla, ezker, eskuin, gora edo behera eginez, baina inoiz ez diagonalean.




Ostiralak badu beste izen bat: BARIKU. Osa itzazu lauki zuriak hitz hori osatzen duten lettrak kontuan hartuta (B, A, R, I, K eta U). Gogoratu, letra bakoitzak behin agertu behar duela zutabe, lerro eta area bakoitzeko.

Sudokua



Zazpikoa

Aurkitu bi zomorroen arteko 7 aldeak.



Soluzioak ikusteko:
www.plazanbazan.eus/

IRAGARKI SAILKATUAK

ALOKAIRUA

Autokarabana eta karabanentzat plazak alokagai, garaje estalia eta beharrezko ekipamentuarekin. Aia-Orio. Tel. 620 85 69 53 (goizez).

Alokatzeko garaje bila Goiko kalen. Tel. 690 27 28 42.

LAN BILA

Emakume gazte bat lan bila. Pertsona helduak eta haurrak zaintzeko prest eta baita garbiketara lanetarako ere. Berehala lanean hasteko moduan. Tel. 642 69 60 38.

Lan bila nabil, etxe garbiketarako egiteko prest. Tel. 641 44 60 70.

Etxeko lanak egiteko edo zaintzan lan egiteko prest nago. Tel. 631 82 44 52.

Lan bila dabilen emakumea naiz. Bikaina naiz haurrak zaintzen, eta garrantzi handia ematen diot garbitasunari eta txukuntasunari. Arduratsua naiz, eta arreta handia jartzen dut nire lanean. Berehala lanean hasteko prest nago. Tel. 602 08 98 86.

Lan bila nabilen neska bat naiz. Haurrak edo adineko pertsonak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko prest

nago. Barneko zein kanpoko langile bezala, edo orduka. Esperientzia eta erreferentziak ditut. Samanta. Tel. 643 85 78 54.

Emakumea adineko pertsonak zaintzeko edo orduka lan egiteko prest. Harremanetarako deitu honako telefono zenbakira: 697 65 05 19.

Ingeleseko klase partikularak emateko prest nago. 20 urteko neska oriotarra naiz, ordutegi malguta daukat. Tel. 690 06 63 11

SALGAI

Olaciregi txipironera salgai. Suzuki DFIS motorra. Abendura arte aseguruia ordaindua du. 3.500 euro. Tel. 657 77 45 11.

BESTELAKOAK

Land Rover Defenderra erosi nahiko nuke, berdin du zer egoeratan dagoen: ITVa pasa gabe, kolpeekin, aberiatuta... Tel. 623 17 95 37.

Orion bizi den familia bat autokontsumorako baratze ekologiko bat egiteko lurzoru baten bila dabil alokairuan Orion edo inguruan. Tel. 657 71 96 14.

Bigarren eskuko mountain bike bizikleta erosiko nuke. Interesatuak, idatzi edo deitu KARKARAra.

MAILAN (Tren-geltoki atzealdean). Jantokiko antzinako altzariak, kaobazkoak, kalitate handikoak. Aukera ona. Deitu: 943-89 03 45 edo 669 78 19 63.

Iragarkietarako bokoa. Iragarri nahi duzun hori telefonoz (943-83 15 27) zein e-postaz bidali dezakezu: karkara@karkara.com. Merke asko, gainera, doako zerbitzua baita gurea.

ITSASOA

Eguna	Itsasgora	Itsasbehera	Ilgaria
1	05:44 eta 18:07	11:54	☉
2	06:24 eta 18:47	00:07 eta 12:34	☉
3	07:07 eta 19:30	00:49 eta 13:17	☉
4	07:53 eta 20:18	01:34 eta 14:03	☉
5	08:46 eta 21:16	02:24 eta 14:56	☉
6	09:53 eta 22:33	03:25 eta 16:03	☉
7	11:26	04:43 eta 17:30	☉
8	00:06 eta 13:05	06:18 eta 19:00	☉
9	01:29 eta 14:16	07:41 eta 20:08	☉
10	02:30 eta 15:07	08:41 eta 20:58	☉
11	03:18 eta 15:48	09:26 eta 21:40	☉
12	03:58 eta 16:23	10:04 eta 22:16	☉
13	04:33 eta 16:54	10:39 eta 22:51	☉
14	05:05 eta 17:22	11:11 eta 23:24	☉
15	05:36 eta 17:50	11:42 eta 23:56	☉
16	06:06 eta 18:18	12:12	☉
17	06:36 eta 18:46	00:27 eta 12:42	☉
18	07:07 eta 19:17	00:59 eta 13:12	☉
19	07:41 eta 19:52	01:32 eta 13:45	☉
20	08:21 eta 20:36	02:10 eta 14:25	☉
21	09:15 eta 21:43	02:59 eta 15:18	☉
22	10:41 eta 23:20	04:13 eta 16:43	☉
23	12:22	05:53 eta 18:22	☉
24	00:49 eta 13:34	07:14 eta 19:32	☉
25	01:51 eta 14:25	08:09 eta 20:22	☉
26	02:39 eta 15:07	08:53 eta 21:04	☉
27	03:21 eta 15:46	09:33 eta 21:44	☉
28	05:00 eta 17:24	11:11 eta 23:23	☉
29	05:40 eta 18:03	11:50	☉
30	06:21 eta 18:43	00:03 eta 12:30	☉
31	07:03 eta 19:24	00:45 eta 13:11	☉

FARMAZIAK-MARTXOA

ZARAUTZ

1.	ETXEERRIA: Gipuzkoa kalea, 17 / 943-83 23 98
6, 7, 23 eta 29.	ESPARZA: Santuturri plaza, 5-6 / 943-50 47 83
5 eta 17.	GALLO: Zigorria kalea, 17 / 943-13 40 19
18, 24 eta 30.	GARMINDIE: Gipuzkoa kalea, 68 / 943-12 40 19
10 eta 22.	IRIARTE: Zinkunegi, Pilarbo Enea / 943-13 29 70
1, 3, 4, 9, 12, 15, 16, 20, 21 eta 26.	ITURRIA: Kale Nagusia, 12 / 943-83 29 70
13, 14, 19, 25 eta 31.	LARRAÑAGA: S. Frantzisko, 16 / 943-13 38 14
2, 8, 27 eta 28.	REDONDO: Urdaneta kalea, 8 / 943-13 31 83

AGENDA

**EMAKUMEEN
NAZIOARTEKO EGUNA**

MARTXOAK 5 OSTIRALA
Orainmenean bertso feminista saioa.
Arraunetxean, 19:00etan.

MARTXOAK 7 IGANDEA
Manifa.
Herriko plazan, 19:00etan.

MARTXOAK 10 ASTEAZKENA
Indarkeria matxista kasuen aurrean
zein salaketa eta defentsa aukera
ditugu?
Kultur Etxean, 17:00-20:00.

MARTXOAK 18
Arrazismoa eta xenofobia gure
inguruan.
Kultur Etxean, 18:00-19:30.

MARTXOAK 30
Zaintza lanen duintzea.
Kultur etxean, 18:00-19:30.

M8

ORIO

MARTXOAK 12 OSTIRALA

Antzerkia: *Fadoak entzuten zituen gizona.* Kepa Errasti, Ane Gabarain eta Iñigo Aranbarri. Sarrerak: 10€.
Arraunetxean, 19:00etan.

MARTXOAK 14 IGANDEA

Haurrentzako ekitaldia: *Denboraren taupadak.* Sarrerak: 2€.
Arraunetxean, 18:00etan.

MARTXOAK 20 LARUNBATA

Kantaldia: Esti eta Mikel Markez. Sarrerak: 10€.
Karela kiroldegian, 19:00etan.

MARTXOAK 26 OSTIRALA

Kantaldia: Jon Gurrutxaga & Urbil Artola. Sarrerak: 2€.
Arraunetxean, 19:00etan.

Puntua jarrita

Gontzal Aldai.
(Doinua: Iturriotz eta Xenpelar)

1

**Bulebarra dirudi
paota bideak,**
dena irauli baitu
birusan goldeak.
Mendian gora goaz
ahul indargeak,
gure ezin guztiak
barnean gordeak,
gurutzearen bila
gaur sinesgabeak.

2

Argi urdinak nonahi
zenbat buru pitz
norbanako ardura
ta sermoilaritza.
Ekonomia eta
pertsonon bizitza
bizi dugun denboran
oreka bortitza,
covid sintoma bat da
kapitala gaitza.

3

Gaixo, hilen gainetik
dator oihartzuna
krisi amaigabeen
juggernaut astuna.
Kontrol sozialpeko
batasun aizuna,
unearen aitzakiz
ezartzen zaiguna,
miseriarentzako
b'al dago bakuna.

4

Azken finean hau da
betiko berdina,
historiaren joan
garratza, gordina
oraina beltza dugu
geroa urdina.
Ai, nahiz beti dituzten
prest su ta burdina
bildurtuta leudeke
batuta bagina.

Hurrengo bertsolaria:

Ander Atorrasagasti Aizpurua.

Puntua:

Kontxara begiratz
Aurten ondo al gaude?

**Hasi Bertsotan atalean puntuka ariko dira bertsolariak. Oraingoan Gontzal Aldairi jarri dio puntua
Aritz Lizasok: "Bulebarra dirudi Paota bideak". Hurrengoari ere jarri dio puntua.**



ZUZENEKO EKITALDIEN EMISIOAK STREAMING BIDEZ

Bezeroaren
webgunetik edota
gure hedabideen
bitartez



**EKITALDI EDO SAIO
BEREZIREN BAT
ANTOLATZEKOTAN
BAZARA, HEMENTXE
GAUDE, BERTAKOAK
GARELAKO**

943-81 38 41
gukazerbitzuak@ukt.eus

GUKA
ZERBITZUAK